



Emakumeen egoeraz
Marisol Tabernarekin

03

Emakumeen Nazioarteko Eguna izanen da igandean. Hainbat ekitaldi antolatu dira han eta hemen, tartean Beran, Uxua Emakume Taldearen eskutik. Taldeko kidea da Marisol Taberna.



Larretxearen laugarren
binakako txapela

37

Donato Larretxeak Urrezko Aizkolarien Binakako laugarren txapela jauntzi du. Iaz bezala, Atutxa II.a izan du lagun eta bizkaitarrarekin lortu duen bigarrena izan da.

2009ko martxoaren 5a • XXIX. urtea
www.ttipi.net



04

Sarrioko lehenengo langileekin solasean

LEITZA ZE HARO ALDATU ZUEN FABRIKAK 50 URTE BETE DITU BERRIKI

 **Lurr**

martxoak 7 larunbata

Sutagar **20 URTE**

23:30 12€ Aurretik 15€ Takillan

martxoak 14 larunbata

La Pulquería + RATAKALBA

23:30 10€ Aurretik 12€ Takillan

martxoak 15 igandea

ATXISKITAN  korrika ðek

17:00

martxoak 21 larunbata

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA FINALA

17:00

JALISKO BAND ETA JAIONE OLAZABAL

00:30 9€

martxoak 28 larunbata

89-99 **BESTA**

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA

LURELIZONDO.COM

DATUAK...

- Martxoaren 8a da igandean, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Emakumeen eskubideak aldarrikatuko dituzte hainbat tokitan, eta gure inguruan ekitaldiak izanen dira.
- Beran, erraterako, Uxua Emakume Taldeak bi film eskainiko ditu ortzegunean eta igandean, eta larunbaterako bazkaria antolatu du, Kultur Batzordearen laguntzarekin.
- Marisol Taberna Uxua taldeko kidea da eta emakumeen egoera nola ikusten duen azaldu dio Ttipi-Ttapari.



Marisol TABERNA *Berako Uxua Emakume Taldea*

ARGAZKIA: G. PIKABEA

«Hedabideetan agertzen dena baino indarkeria kasu gehiago daude»

Gurutze PIKABEA

Azken hamarkadetan aldaketak izan dira eta emakumearen presentzia indartu egin da. Halere oraindik bada desberdintasunak...

Bai, oraindik ere diferentzia haundiak daude. Lan baldintzei erreparatzen badiegu, orokorrean emakumeen soldata tikiagoa da. Horrez gain, emakumeek lan aukera guttiago ditugu, eta promozioa eta kontziliazioan ere kalteuagoak gara. Eta ez dira lan kontuak bakarrik. Tratu txarrak, heriotzak, eraso sexualak... emakumeok sufritzen ditugu eta hemen ere gertatzen dira. Eta krisiarekin nork sufrituko du gehien? Ba emakumeak.

Egunero indarkeria kasuren bat aditzen dugu hedabideetan...

Orain arte urrutiko kasuak bailiran ikusten genituen, Andaluzia aldean, Valentzian... Gaur egun, ordea, hurbiletik ezagutzea tokatu zaigu. Herrian ez bada, egoera horretan dagoen hurbileko norbait ezagutuko dugu. Hedabideetan agertzen dena baino higitzez ere kasu gehiago gertatzen dira. Oraindik ere kontua isilean gordetzen dutenak aunitz dira. Emakume batek bere esku-

«Enpresa aunitzetan sartzeko zailtasunak dituzte emakumeek eta kanpora joan behar dute lanera. Inguruko lantoki batzuetan, gainera, baldintzak eta soldatak ez dira berdinak gizon eta emakumeetan»

bideak exijitzen ditu orain. Lehenago, aldiz, etxean egotera ohituak zeuden, deus eskatu gabe, eta gizonari jotzeko «arrazoirik» eman gabe. Kontuan hartu behar da, orduko bikoteak ez zirela bereizten, eta orain kasu aunitz banandutakoan gertatzen dira.

Gure inguruan, emakumeei begira zein gabezia daude?

Lan kontuetan, adibidez, enpresa aunitzetan sartzeko zailtasunak dituzte emakumeek, eta kanpora joan behar dute lanera. Inguruko lantoki batzuetan, gainera, baldintzak eta soldatak ez dira berdinak gizon eta emakumeetan. Gainera, etxetik kanpo lan eginagatik emakumeak etxeko ardura haundienarekin segitzen du. Bere garaian, Bortziritan emakumeen arretarako zentroa lortzeko ahaleginetan

ere aritu ginen, baina nahiko etsita gaude. Ginekologia zerbitzua Elizondon dago, urruti, eta horrez gain, Nafarroan zerbitzu hori hagitx murriztua dago. Hiru-lau urtetik behin azterketa egitea ez da aski.

Bortziritako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako lehen plana paratu zen martxan 2006an...

Egia erran motel xamar dago. Dirulaguntza baten bidez, berdintasun arloko teknikari bat kontratatu zen Bortziritan eta lanean hasi ginen, baina bigarren urtean bajaran egon da eta teknikaririk gabe egon gara. Halere, berdintasunaren alde lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko bigarren ituna sinatu da berriki.

Uxua Emakume Taldean nola funtzionatzen duzue?

Bi astetik behin bilerak egiten ditugu. Emakumeen gaiei buruzko solasaldiak izaten dira, gure hausnarketak. Emakumearentzat egun seinalatua dena zerbait antolatzen saiatzen gara, baina egia erran, momentu honetan nahiko motel dago kontua. Edozer egiteko dirulaguntzen menpe gaude beti.

Elkarrizketa osoa: www.ttipi.net/en.

Langileak pintadora makinaren ondoan.



Emakumeak ilaran orduko nagusiari harrera egiten.



Langileak eta orduko nagusiak.



Lantegia inauguratu ondoko bazkaria.



ARGAZKIAK: FELIPA AIERDI ETA JESUS AZPIROTZ

Lantegiaren inaugurazioko momentuak ageri dira argazkietan.

Mende erdia pasatu da Leitzako Sarrio lantegiak ateak zabaldu zituenetik

PAPERGINTZAKO ENPRESA HAUNDI BATEN ESKU DAGO 1991TIK

1959ko otsailaren 1a zen. Bi urte obratan pasatu ondotik egun horretan jarri zen martxan Leitzako Sarrio paperfabrika. Leitza goitik behera aldatu zuen enpresa izan zen. Abeltzaintza eta nekazaritza utzi eta bizia aurrera ateratzeko beste aukera ekarri zuelako Leitza eta ingurura. Biztanlerian ere iraultza eragin zuen eta 1960an 1.626 biztanle izatetik, 1980an 3.262 izatera pasatu zen. Geroztik 50 urte igaro dira, eta gorabeherak gorabehera, oraindik funtzionamenduan segitzen du. Patxi Arrazola zestoarraren ekimenez ireki zen Sarrio Leitza. Berrobin (Gipuzkoa) martxan zegoen Uranga paperfabrikako kudeatzailea zen Arrazola eta hark Leitza aukeratu zuen paperfabrika berria zabaltzeko. Gainera, orduko Leitzako Udalak ez omen zion batere trabarik paratu. Ehun bat langilerekin hasi zen lantegia, enpresa haundi baten esku gelditu zen 1991n, estatu espainiarreko papergintza kontrolatzen duen Torraspapel enpresaren esku, hain zuzen. Gaur egun, 450 langile inguru ditu, baina bere garairik oparoenean 1.500etik gora ere eduki zituen.

Gurutze PIKABEA

Jesus Azpirotz, Pilar Azpirotz, Juanito Alduntzin eta Felipa Aierdi leitzarrek ongi gogoan dituzte Sarrioren hasierako urte haiek. Fabrikaren lehen-dabiziko ehun langile haietakoak izan ziren. Halere, herriko lantegian hasi aurretik Berrobiko Uranga fabrikari ibili ziren ikasten. Urte gogorrak izan ziren, eta gogotik lan egin behar izan zuten, «zenbaitetan goizean 8:00etan sartu eta gauean 22:00ak arte», dio Pilarrek.

Guztiak ere gazte hasi ziren Sarrioren, gehienak eskola bukatu eta handik gutxira, eta beste zenbait baserria utzita. Jesus, adibidez, 20 urterekin sartu zen paperfabrikan eta 40 urtez han ibili zen, pintadora deituriko makinan. Juanito ere makina berean aritu zen, baina errelebo desberdinean. 14 urterekin baserria utzi eta Sarriora jo zuen eta 42 urte pasatu zituen hantxe.

Langile gehienak gizonak izan arren, emakumeek hasieratik defendatu zituzten euren eskubideak, eta protesta egin behar bazen, horretan lehenbizikoetarikoa zela aitortu digu Pilarrek: «*emakumeak elkartu eta soldatak hobetzeko eskatzen genien nagusiei, baita lortu ere*». Pilar zein Felipa, bata zein bestea, gazteak ziren Sarrion sartu zirenean, 21 urte zituen Pilarrek, eta 22 Felipak. Pilarrek 34 urte pasatu zituen «*paperak pasatzen eta orriz-orri kontatzen*». Egun, makinek egiten duten lana egiten, alegia. Felipa, berriz, 28 urte bete arte ibili zen kalitate kontrolean eta gero lantegia utzi zuen. Beste emakumezko askok bezala, ezkontzeko. Trukean indemnizazioa jaso zuen.

SARRION HASI ARTE, TXORIAK BEZALA LIBRE

Lantegian sartu eta gelditu gabe lanean hasteak aldaketa nabarmena eragin zuen langileen bizitzan. Feliparen hitzetan, «*ordura arte libre ibiltzen ginen, txoriak bezala, eta fabrikari sartu eta han egoitea aldaketa haundia izan zen*». Baina etxetik bertan, «*bost minutu-ra*», dio Pilarrek. «*Horizen onena*». «*Egunean 30 pezetako jorнала*». Jesusek esan digunez, horixe jasotzen omen zuten eguneko. Juanito, berriz, egindako lanaren arabera nagusiek erakusten zizkieten txartelez oroitu da: «*txartel arrosak lana ongi eginez gero, eta beltzak gaizki eginez gero*».

Baina poliki-poliki baldintzak hobetuz joan ziren eta herria ere asko aldatu zen. Neurri batean onerako, baina baita txarrerako ere. Pilarren arabera, hondamena ekarri zuen herrira: «*langileentzako pisuak egiten hasi zirenean ordura arteko itxura galdu zuen Leitzako*».

AMAZABAL PATRONATUA

Bestelako berrikuntzak ere ekarri zituen Leitzara Sarriok, hala nola, Amazabal Patronatua. Herritarak, Udala, Eliza eta enpresa izan ziren Amazabal Patronatuaren sustatzaileak eta horren bidetik, besteak beste, frontoia, eskola profesionala, nekazaritza eskola, ikastola, liburutegia, herriko plaza... eraiki ziren.

LAU PRODUKZIO LERRO

Paper berezia egiteagatik izan da ezaguna betidanik Sarriok, gaur egun, Sarriopapel y Celulosa deitua. Lau produkzio lerro ditu: *eurokotea*—goi mailako etiketak egiteko—, *autokopiatzailea* edo *euro-*

ETORKIZUNA



Leitzako Sarriopapel lantegia goitik hartuta.

ARGAZKIA: TORRASPAPEL

Egoera egonkorra, baina sindikatuak zuhur

Krisi ekonomikoak hainbat enpresa atindu baditu ere, badirudi Leitzako Sarriopapel lantegian ez dutela eraginik somatu. Torraspapel enpresaren talde bereko bi lantegi itxiko dituela iragarri du enpresak, Zornotza (Bizkaia) eta Algeciras-eko (Espainia), baina Leitzan orain arte adina ekoizten segituko omen da. Gainera, seguru aski, Zornotzatik 20 bat lantegi Leitzara joanen dira.

LAB eta ELA dira Sarriopapelen ordezkariak duten sindikatuak eta etorkizuna nola ikusten duten galdetu diegu. LABen ustez, «*egoera nahiko egonkorra da. 2008ko azken hilabeteetan lan eskariak beharakada izan bazuen ere, orain badirudi berpiztu dela. Alde guztietara, multinazional hauetan goiko zuzendaritza-*

ren erabakiekin gauetik goizera alda daitezke gauzak eta zaila da benetan egoera jakitea». ELAk ere ez du garbi ikusten etorkizuna: «*momentuz, gauden egoerari jarraitzea posible dela dirudi. Baina zuzendaritzak ez du deus argitzen*».

Emakumeek lantegi honetan dituzten baldintzei buruz ere galdetu diegu, eta biak sindikatuak bat etorri dira: emakumeek aukera gutxiago dituzte. «*Lanpostu berean dauden langileek, izan emakumea edo izan gizonezkoa, soldata berdina dute, baina azken urteotan emakumei ez zaie aukerarik eman*», dio ELAk. Bide beretik, LABek zera azaldu digu: «*kontratazio berrietan emakumei ez zaie aukerarik ematen, eta hor pausoak eman beharra dago*».

kalkoa—paper-ikatza erabili gabe duplikatuak egiteko—; *metalizatua*—%100ean birziklatua eta enbase eta ontzien etiketatara—; eta *termikoa*—errezibu, etiketa, ticket, fax eta abarretarako—.

Baina paper bakoitzaren garapena urteekin aldatu den zerbait izan da. Poliki-poliki bere produktu gama zabaltzen joan zen Sarriok. 1963an, Txileko enpresa baten esku gelditu zen eta horrekin batera, 1964an eta 1965ean, eurokote papera eta metalizatua lantzen hasi zen. Eurokalkoaren produkzioa beranduago sartu zen, 1971n. 1999an, berriz, Black Clawson iztukatzailea—estukadora—paper termikoa-aren produkzioarako egokitu zuten. Ordurako, ordea, Torraspapel taldearen eskutik zegoen Sarriok.

Garaiak eta modak zerikusi haundia du produkzioan eta papergintzan ere halaxe da. Gaur egun, esaterako, paper metalizatu eta termikoa-aren produkzioa gora doan bitartean, eurokote eta eurokalkoarena behera doa, eta hori mantentzea da orain enpresaren erronka.

KLASE GUZTITAKO NAGUSIAK

Sarriok Leitzan daramatzen 50 urteotan gisa guztietako nagusiak pasatu dira lantegitik. Patxi Arrazolaren inguruko kezarik ez diegu entzun orduko langileei. Geroztik, baina, dezente pasatu dira, eta tartean ezagun egin direnak ere bai.

1991n paperfabrika Torraspapelek bereganatu zuenean, ikaragarritzko zorrak agertu ziren. Torraspapelek erosi arte Javier de la Rosa izan zen arduraduna, KIO eskandaluan 500 milioi dolar bereganatu eta geroztik kartzelan dagoen huraxe, hain zuzen. Haren iruzurren ondorioz, beste hainbat tokitan bezala, ordainketak eten egin behar izan zituzten Sarrion eta aldi baterako erregulazioak etorri ziren. Hala ere, garai korapilatsu hura pasata, hobera egin zuen eta bere gorabeherekin bada ere, aurrera doa. Berriki, gainera, zuzendari berria izendatu dute: Luis Ortega.

Edonola ere, sindikatuak zuhurtziaz, LABen arabera, «*gauzak gauetik goizera alda daitezkeelako*» eta ELAren hitzetan, «*ezin delako inoz jakin zer etorriko den*».

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Gurutze Pikabea.
Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtatzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leizeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2009ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	36 €
Espainia	36 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizeta	30 €



Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



• IRAKURLEAK MINTZO •

Miopea, gaixotasun arraroren bat duena

Oninen arabera, «PNVko norbaitek okulistarengana joan behar luke, gaixotasun arraroren bat edukiko du».

Joan den urteko udan, pagoak eta urkiak legez kanpo botatzeagatik, Lesakako Udalarai egin nizkion kritika politikoei erantzuteko argudiorik ez, eta bi adjektibo eta baliabide semantiko horiek erabili ditu Onin Udal Taldeak politika modu burutsu, adeitsu eta zuzenean egiteko bere ikasgai didaktiko eta praktikoki ditziratsuan oinarrituz. Nire ize-na erabili gabe (erraz identifika daiteke salatu zuen bakarra ni izan nintzelako), baina argi utziz, denaren gainetik, eurek ukiezinak direla (ezta Patxiku jeneralisimoa izanda ere).

Nik ulertua nuenez, demokrazia erreprezentatiboan (egun nagusi de-

na) herriak aldizka egiten diren hauteskunde libre-etan aukeratutako agintariei ematen die subiranotasuna. Agintari horiek, teoriarik, herritarren interesen arabera jokatu behar dute, herriak aukeratutako ordezkariak baitira. Hartutako erabakiak legearekin bat ez badatoz, errekurritu daitezke-elakoan nago, edo guttinez, kritikatu. Lesakan, oraingo Udal Gobernuarekin, badi-rudi hori ezinezkoa dela, herritarrek Udal Gobernu-koei komeni zaiena bakarrik ikusi behar dutela dirudi; halaxe ondoriozta daiteke Oninek etxe etxe buzoietan banatutako buletinik eta prentsan argitaratutakotik, nik salaketa egin eta handik sei hilabetera.

Deskalkifikazio arinez gain, errealtatea ezkutatze berrirori ere gezur lotzagarrira jo dute euren hautesleen aitzinean. «Sasiak» eta «aranondoak» deitu diete legez kanpo botatutako pago eta urkiei. Bere garaian ez-jakintasunagatik izan ba-

zen ere, orain, hori erratea hagitz larria da, arrazoiak ezagutuz erran dutelako gezurra, eta beraz, herritarrek engainatzeko asmoarekin eta salatu duen herritarri izen ona kentzeko. Eta horiek edozein hautetsik egin ditzarkeen akats larri-erari-koak dira: hautesleei gezurra erran eta deskubritzen duenaren izena zi-kindu.

Hori frogatzeko, argituko dizuet, Nafarroako Gobernuak 239/2008 espedientea ireki ziela eta hortik hasita Ingurumen eta Ur Zuzendarai Nagusiaren azaroaren 12ko 2093/2008 ebazpena etorri zela. Horrekin Lesakako Udalaren kontrako zehapen-espedientea abiatu zen, baimenik gabe, Aginan 21 pago eta 14 urki (zuek umorez «sasiak» eta «aranondoak» deitzen dituzuen horiek) botatzeagatik; arau-hauste hori abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legean bildua dago. Beraz, argi gelditu da zuek legea urratu zenuela, eta baduzuela horren berri, Go-

bernuak jakinarazi zizuelako. Akatsa onartu beharrean, gai honekin zerikusirik ez duten bertze gaiekin nahasi duzue kontua. Gai honi buruz jendaurrean hitz egin eta hedabideren batean idazten duzuenean, zuen baieztapenek zenbaterainoko sinesgarritasuna izan dezaketean adierazten du honek guztiak.

Bukatzeke, benetan axola zaiena nire ikusmena dela dirudienez, erran nahi dizuet, duela gutti gidabaimena berri-tu dudala (betaurrekorik gabe); eta diozuen gaixotasun arraro horri buruz, berriz, zer nahi duzue erratea... (Ni, ongi, eskerrik asko). Oroitarazi, azkenik, oraindik 2008ko uztailaren 28ko nire gutunean egin nituen galdera garrantzitsu eta sinpleen erantzunaren zain nagoela. Ez liderrak ez alkate jaunak ere, ez baitituzte erantzun eta oraingo komunikatuan ere ez dute egin.

Jose Luis Etxegarai Andueza

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK

ZURE LAGUNTZA

BEHAR DU

Eginzazu TTIPI-TTAPAren alde
Eskatzen duzuen TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

Proiektu zenbakia: 15.996

Zure laguntza eskertzeko, mobila edo hau izanen duzu opari.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Etxarlako herriaren interesak defendatzen segitzen du Herri Taldeak

Etxalarko EAK, Arrakoitz poligonoaren inguruan egin dituen adierazpenen aitzinean, Herri Taldeak puntu batzuk argitu nahi ditu;

- EA taldeak idazten du bere Alkarberrin, «epaiketara joateari uko egiten dion akordioa» sinatu zela. Herri Taldeak argitu nahi du iralekuen konbenioa sinatu baino lehen epaiketa bat mar txan zegoela Iruñeko lehen instantziako 4. epaitegian, 854/2002 zenbakiarekin, Arrakoitzeko lurren jabeak sustatuta. Etxalarko Udalak bere eskubideak eta komunalen defentsa egiteko aurkeztu zuen bere burua epaiketa horretan. Beraz, argi gelditzen da, hemen inork ez duela epaiketa batera joateari

uko egin.

- Bertze puntu batean «akordio extrajudiziala» aipatzen du. Gauzak argitze aldera, erran, akordio hau 2003ko apirilaren 4ko batzarrean onartutako iralekuen konbenioa dela (EAREN kontrako botoekin). Konbenioa berretsi egin zuen Nafarroako Gobernuak 2003ko ekainaren 9an egindako batzarrean, 136/2003 agindu forala ateraz eta N.A.O. 85 zenbakian argitaratu 2003/7/4an. Akats batzuk ikusita, horiek konpondu eta berriz argitaratu zen 2004/1/21an, N.A.O. 9 zenbakian. Konbenio honetan Etxalarko herria 392.956 m²rekin gelditu zen eta Arrakoitzeko jabea 10.480m²rekin.

- Etxalarko EAK, Herri Taldearen azkeneko urtetako lana dudan jartzen du baita uko egin izana zenbait gauzari ere. Aitzineko puntuak ikusita argi eta garbi erran behar dugu eguneroko lanaren gardentasuna ez dela zalantzan jarterik...

Etxalarko Herri Taldeak adierazi nahi du tinke eta zuzen jarraitzen dugula Arrakoitzeko poligonoa aitzinera ateratzeko lanetan, gainera poligono honek Bortzietako gizarteari onura ekar diezadoke krisi garai honetan.

Etxalarko EAK argi erakusten digu ez dutela poligonorik nahi; kontrako norabidean ari dira lanean, bidean harri kozkorak jarri; zenbakiak, kontzeptuak, legalitatea eta bakoitzaren nahia nazasiz; konbenioak erregaluekin konparatuz; kontrako bozkatzeko edo zuzenean ez bozkatzeko, eta gainera, Herri Taldeari ezer ez egiteko esanez. Falta zitzaiguna!

EAK salatzen duen bezala, Herri Taldekoak ordezkari publikoak izanik ez balituzte udal interesak behar bezala defendituko, eta milioi 1 eta 2 arteko kontrako konbenioa sinatu, epaitegieta jo beharko luke eta ez haizea saltzen ari. Horrelako adierazpenak egi-

ten dituenak kasu eman beharko luke zer idazten duen, hitzak norberaren kontra joaten ahal dira eta.

Etxalarko Herri Taldea

Uholdearen inguruan Etxalarko EARI erantzuna

EAK atera duen azkeneko prentsa oharrean, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak jasotzeko eta kalteak %100ean kobratzeko zorroztasuna eskatzen dio Udalari. Zein dirulaguntza ari dira? Guk dakigun ez dago inolako dirulaguntzarik, lege proposamen bat bakarrik, Nafarroa Baik egina. Berriz ere, behia baino lehen zintzarria eresia.

Alkatea, edozein erakundek herrira bisita egiten duenean edo ingurura hurbiltzen direnean,

hor egoten da. Azkeneko adibidea Garraio Departamentuko kontseilaria Doneztebera etorri zenekoa dugu. Kontua da, bisita egiterakoan bertaratzen diren teknikoak eta Udaleko teknikaria elkarrekin izatea, alkatea egotea bezain garrrantzitsua dela, beraiek kuantifikatu eta kalifikatzen baitituzte obrak.

Maiorga Ramirez, Etxalarko salbatzailearen moduan agertzen zaigu; egia erran, Herri Taldekoak ez dakigu zer egin «*espíritu santua*» edo «*maior seguidor*» izendatu? Bere lanaren arrastorik ez dago Etxalarren. Ematen du berak moztzen duela pastela, baina parlamentuan, pastela, bertze batzuen eskuetan dago. Nonbait EAKoek «*agostazo*»aren ondorioz insolazioak jota, egunetik egunera gero eta nahasiagoak daude.

Etxalarko Herri Taldea

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

edredoi fundak
albomozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

2009ko udaberriko kolekzio berria

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

BERA

Zalain auzoa industrialdetik bereiziko duen bidea eta babesgunea eraikiko dira

Halere, nabeak zenbait etxetatik hurbil geldituko dira eta ez dira auzotarren eskari guztiak bete

ttipi-ttapa

Zalaingo auzotarrak ez daude gustura, baina Udalak bizilagunen nahiak ezin ditu gogobete. Auzotarrak hasieratik arduratu dira, 1990az geroztik auzoa industrialdetik bereizten duen bidea eta auzorako sarbidea izan dena, nabe berriekin desagertzen ikusi zutelako. Gaiarekin bueltaka ibili ondotik, azkenean, auzotarrek euren bidea izanzen dute eta industrialdea eta auzoaren artean berdegunea ere bai, baina ez eurek nahi adinakoa. Erabakia otsailaren 27ko plenoan hartu zuen Udalak.

Erabaki berri honekin, nabeak zenbait etxetatik hurbil geldituko dira, eta auzotarrentzako bidea estua izanzen da, baina Josu Iratzoki alkateak aipatu digunez, hori izan da gelditu zaien so-

luzio bakarra. Hirigintza Planean onartutako alineazioak ez dira aldatu, eta Udalak etxeekiko mantendu beharreko distantzia hasieratik finkatu du. Baina 2007an Udalak eta promotoreak sinatu zuten hitzarmenarekin, azken honek hainbat eskubide lortu zituen. Horrela, nabeak etxetatik hurbil geldituzeraino eraikitzeko baimena du promotoreak.

Emakumearen astea

Emakumeen Eguna harira, bi film emanaldi antolatu dituzte Uxua Emakume Taldeak eta Kultur Batzordeak. Ortzegunean, *Caramel* ikusgai izanen da 19:00etan Kultur Etxean eta igandean, *Mi pequeña Sushine*, 18:00etan. Larunbatean, bazkaria egingen dute Zubi-Ondon.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Giro eta umore ona nagusi inauterietan

Otsailak 18ko, inauteri bestarekin hasi eta asteleheneko zingar-arraultze eskearekin bukatu ziren aurtengo inauterietako ekitaldi nagusiak. Tarte horretan, ordea, ez mozorroek eta ez inude eta artzainek ere, ez zuten hutsik egin. Haur eta gaztetxoak Ortzegun Gizen egunean atera ziren inude eta artzainez jauntzita, eta helduak iganden herrian barna ibili ziren.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

II. Bateragarritasun Ituna sinatu da

Bortzirietako 21 erakundeek lana, familia eta bitzta pertsonala uztartzeko bigarren itun mankomunatua sinatu zuten otsailaren 26an Herriko Etxean. Hainbat ekitaldi egingen dira eta lehenbizikoak Bortzirietako gizarte eragileei zuzendutako formazio ikastaroak izanen dira. Bina orduko tailerrak egingen dira martxoaren 12, 17 eta 26an eta apirilaren 2an, 18:00etatik 20:00etara, Cederna-Garalur erakundeak Alkaiagan duen egoitzan.



2008-2009 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA EGITEKO AUKERA ZABALIK!!!!!!

MARTXOAREN 1etik 18ra

- Informazio gehiago:
Berako Udal Haur Eskolan
Eztegara poselekuak, 42
Tel/Fax: 948 631 656
e-posta: berakoffikiak@bera.gara.com

BERAKO UDAL HAUR ESKOLAN

UNA ESCUELA PARA TODOS DENONTZAKO ESKOLA



C e n t r o
S a g r a d o
C o r a z ó n
J e s u s e n
B i h o t z a
I k a s t e t x e a

AURRE-INSKRIPZIO EPEA

martxoaren 9tik 16ra



Legia 20 • 31780 BERA • Tel. 948 630 009
scorazonbera@planalfa.es

LESAKA

655.000 euroko mailegua eskatu du Udalak igerilekuko lanak ordaintzeko

EAK eta Oninek alde bozkatu zuten eta PNVk kontra, «aurrekontu-zorroztasunik ez dagoelako»

Aitor AROTZENA

Udal igerileku estalia ireki zenetik urtea bete den honetan, Udalak 655.000 euroko mailegua eskatu behar du Euskadiko Kutxan, lanen 25. egiaztatzea ordaintzeko. Honela onartu zen ilbeltzaren 23ko ez ohiko batzarrean, EA eta Onineko zinegotzien aldeko botuarekin eta PNVren kontrakoekin. Udalak 20 urteko epea izan du kreditua itzultzeko.

Bere kontrako botua azaltzerakoan, PNVk bere haserrea adierazi nahi izan zuen, «legealdi honetan gastu batzuk inolako aurrekontu-zorroztasunik gabe egiten direlako». Igerilekuko obran bertan gastuak izugarri igo direla azpimarratu nahi izan zuten, proiektuan agertzen ez ziren lanak egiteagatik, «diru-sarrerarik aurreikusitako gabe eta udaleko osoko bilkuran eztabaidatu eta onartu gabe». Igerilekuko ostatu-jatetxea ustiatzeko moduarekin ere

ez dago ados PNV: «Ustiatzeari uzteagatik 18.000 euro inguruko kalte-ordainak pagatu eta gero, ikusten dugu kalte-ordainajaso zuen pertsona berak ustiatzen segitzen duela, tartean lehiaketa edo kontraturik egin gabe eta, gainera, Udalarari deus ere ordaindu gabe».

EGOERA EKONOMIKOA «AURREKO HERENTZIA»

Oningo Fermin Alzugarairi gehiegizkoa iruditu zitzaion udalaren egungo egoera ekonomikoa, «gaurko gobernu taldeari leporatzea» eta argumentazio horiekin segituz gero, «aurreko urteetako herentzia dela» ere erran daitetekeela uste zuen. Horren adibidetzat jarri zuen 2001 eta 2006 urteen artean, PNV alkatetzan zela eta «inola-ko ladrillorik jarri gabe» 512.488 euro gastatu zirela Kultur Etxe eta Liburutegi proiektuen erredakzioan.

Koldo Erkizia alkate-arentzat ere «sinesgaitza» da egoera ekonomikoaren arduradun egungo udal taldea egitea eta bertze hainbat konturen artean, kiroldegiko obretan, 1.132.807 euro prezio kontradiktorioetan gastatu direla aipatu zuen.



ARGAZKIAK: A. AROTZENA

Giro ederra inauterietan

Ortzegun Gizen eguneko haurrek egindako *Arraultze-Arraultze* eskearekin hasita, giro ederrean joan ziren inauteriak. Igandean, 50 bat Zaku-Zaharrek ohiko ibilbidea osatu zuten musika bandaren laguntzaz eta astelehen eguerdian karroza ikusgarriak atera ziren plazara. Goitarrek eta Fraindarrek ere inauteri giroa eraman zuten baserri auzoetara.

Deñe Abuinek aipatu zuenez, «piztaren ostatuaren kontratazioa ez dago Udalaren gain, Urdik eramaten du, gainera PNVk erranda».

Lesakako Osasun Zentroak antolatuta Ezintasunari buruzko III. Jardunaldiak egingen dira martxoaren 11n, 17:30etik 20:00etara, Antoiu 27ko udal aretoan. Prematuritatea edo helduarrekotasuna izanena da hizpide nagusia

Ezintasunari buruzko III. Jardunaldiak martxoaren 11n

eta horretaz gain, atentzio goiztiarraz eta ezintasunaz ariko dira Nafarroako Gobernuko atentzio goiztiarreko taldekoak eta Jendarte Zerbitzuetako, Toki-Ona institutuko, ANFASeko eta ASPACEko ordezkariak.

IRU BIDE
Estrategia - Aspekto
Bilakaera, 3. Inbentario
Tel: 948 637 127

XATURETXEA
JATETXEA
Tel: 948 637 260 - LESAKA

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

GOZZ-AIDE
LAVARANTZIA
www.gi.com - 948 637 127 - LESAKA

ETXALAR

Inauteri desberdinak, jendetsuak eta batez ere, arrakastasuak

Azken urteetan nahiko hila zegoen inauterietako astearte arratsaldea biziberritu dute aurten gazteek bertso pilotarekin

Joseba eta Nerea

Bertso-pilota izan da aurtengo ekitaldirik arrakastatsuenena. Jendearen harreta gehien piztu duena. Xabier Leiza eta Jaber Galarregi *Tolare*, Beñat Irazoki *Bagole* eta Xabier Etxarte *Armitxen* kontra aritu ziren pilotan, Peñagarikano eta Irazu bertsolariak botilero lanetan zituztela. Eskoziarrez jantzita, partida originala jokatu zuten herriko gazteek, gona eta guzti, eta bertsolariak bertso ederrak paratu zituzkieten euren jokaldiei. Umoreak, irriak eta zirrikaldiek ez zuten hutsik egin. Sekulako jendetza elkartu zen frontoi bazterrean, haur, heldu nahiz adinekoak, inauterietako momenturik berezietan. Ondotik, saski baten zozketa egin zen herriko baserri guztien artean (astelehenean gazteek banatu zituzten zenbakiak) eta Maixkineko Bordara joan zen saria.

INOIZ BAINO KARROZA GEHIAGO DESFILEAN

Aspaldiko urtetan ez bezala, aurten karroza aunitz ikusi ahal izan ziren astearte goizeko desfilean. Indiarrek, eskimalak, txinatarrak herensuge eta guzti, San Ferminetako entzierroa, Karlos Argiñano bere telebistako platoarekin eta ijituak azpiko arropa saluzen. Denetarik ikusi zen. Jende parrastak segitu zuen desfilea. Ondotik, Herriko Ostatuan egin zen bazkaria.

Astelehenean, iaz baino kasik dozena bat gazte gehiago elkartu zen baserri baserri eskean ibiltzeko, guztira 70. Bi taldetan banatuta, goiko eta beheko auzoetako bueltak eginda, Armitxen bazkaldu zuten batzuek eta Usategieteko txabolari berteek. Arazo nabarmenik gabe joan zen eguna eta antolatzaileak gustura daude inauterien martxarekin.



ARGAZKIA: ARANTXA DANBORIENA

Astelehenarekin eskean ibili zen gazte talde bat.

HAUR ETA JUBILATUAK ERE INAUTERIETAN

Herriko ttikienek Ortzegun Gizen egunean ospatu zituzten inauteriak. Urtero bezala, etxez etxe eskean ibili ziren goizez eta arratsaldean antzerkiak egin zituzten herrian barna, kalejiran ibili bitartean. Larraburuko jubilatuek, berriz, asteartearekin bazkari ederraren bueltan ospatu zituzten inauteriak. 30 lagunetik goiti elkartu eta berandura arte luzatu zuten euren besta.



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

Uholdeek kalteak berriz ere

Otsailaren 11 egun beldurgarria izan zen. Euria hasi zuen, ez zuen gelditu, eta herritar aunitzi 2007ko maiatza etorri zitzaiezen burura. Zorionez, ez zen orduko uholderik izan baina euri erauntsiak kalteak eragin zituen oraingoan ere. Hainbat zatitan erreka gainezka egin zuen eta errota porean dagoen pareta bota zuen. Etxegaraiko bordan ere ikari ederra eraman zuen, biharamunean, euriaren ondorioz, baserri ondoko granjara doan bidean sekulako erorka izan baitzen. Bidea eta belatiak erreka zokoraino erori ziren, Ibarla baserriraino. Udala lanean ari da uholdearen kalteak konpontzeko.

Javier Manterola
Tekniko instalatzailea
 iturgintza - gasa
 kalifikazioa
 Tfnoa: 629449602 - BERA

USOA
 nekazari kooperatiba
 ganaduarentzat
 pentzurik egokiak
 Tel: 948 635 214 - ETXALAR

PAGOLA
 EMBUTIDOS
artesanos desde
1940
 Alzateko Plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

MERTZERIA
Leño
 LENTZERIA
 Tfno 948 637 514
 BERRIA PLAZA, 10 - LESAKA

J. RAMOS
 zolak akutzilatatu eta
 barnizatzen dituz
 Sakeleko: 637 836 023 - LESAKA

arropak - mairidireak
 mantak - nordikoak
 toallak - kortinak
 alfombra
Goya
 Alzateko, 3 • Tel: 948 630 083

ARANTZA

Martxoaren 14an eginen da Mozorro Besta

Mozorroen Zurien ekimenez, azken urteetan ohitura bilakatu da egun honen ospakizuna

Nerea ALTZURI

Inauteriak berriki pasatu badira ere, bestarako gogoak ez du atse denik. Martxoaren 14rako Mozorro Besta antolatu dute Mozorro Zuriek. Oraindik xehetasunak ez ditugu eskuartean, baina azken urteetan, herri kirol ikuskizuna eta bertso afaria izaten dira batik bat bestako osagaiak

Otsaileko udal Informazioa

Hilabetero bezala, Udaleko berriak biltzen diren txostena etxetzete banatu da.

EURITEAREN ONDORIOAK

Duela hilabete bateko euri erauntsi etengabeen ondorioz, zenbait lur erortza eta pistetako kalte izan dira herrian. Horiek moldatzeko Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskaera egiteko asmoa du Udalak eta

Basartea enpresaren laguntzarekin kalteak zenbatzen ari da.

ZUK AUKERATU ZUK ERABAKI

Herriko Etxeak Nafarroako Kutxako *Zuk aukeratu, zuk erabaki* kanpainaren barrenean bi proiektu aurkeztu ditu: Ludoteka eta frontoiko margotze eta irrista kentzeko tratamendua emateko lanak.

DIRULAGUNTZAK

Langabezia guttiti eta ekonomia bulkatzeko estatuko gobernuak herri bakoitzari dirulaguntza banatu diola jakina da. Arantzari 114.687,98 euro egokitu zaizkio. Urtarrileko pleanoan, bi taldeek proposamenak egin zituzten diru hori non erabili erabakitzeko eta azkenean, Goiko Karrikako 1.300 metro koadro inguru zolaberritzea ados-



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

Inguruak berde-berde

Azkilarrea eta Eguzkialdeko inguruak ageri dira argazkian. Eguraldi ederrak gustora hartu ditugu. Nahikoa busti da lurra eta inguruak berde daude.

tu zuten. Orain lanen esleipen prozesuarekin hasiko dira.

Bertzalde, 2009-2012 urtealdirako Nafarroako Gobernuari zein proiektu aurkeztu ere zehaztu behar dira dirulaguntza eskatzeko. Partida honetan, ur zerbitzuaren zabaltzea, herriko argiteriaren hedapena, herriko karrikak konpontzea, udaletxeko lanak eta abar sartzen dira. Gobernuak dirulaguntza osoa sekula ematen ez duenez -%60-70a ematen du-, gainerako gastua herritarrentzat dela ere gogoratu du Udalak.

LTDREN ESTALDURA

Itzalaldi analogikoaren momentua gero eta hurbilago dago. Urteakaberan izanen da eta ho-

ri dela eta, prestaketa lanekin segitzen du Udalak. LTD Lurreko Teledista Digitalaren estaldura edo kobertura neurtzen ari dira herrian. Izan ere, estaldurik gabeko etxeak egon badaude.

Udalak herritarrek TDT dekodifikadorea delakoarekin etxean seinalerik baduten ala ez frogatzea proposatu du. Estaldurarik ez duen etxeek Herriko Etxean adierazi beharko dute, eta horrela, Udalak horien UTM koordinatuak bilatuz seinalea osatuko du. Datu horiek eskuartean, Nafarroako Gobernuari konponbide bat eskatuko lioke Udalak.

Seinalerik ez dutenen zerrenda ahalik eta agudoen osatzeko, martxoaren

31 baino lehen udaletxera jo beharko da.

MENDIKO LANAK

Aurten ere, bertze lanen artean, mendiarekin loturikoak ezin aipatzeke utzi. Zenbait mendiko lan egitea aurrekusi du Udalak eta Basartea enpresak proiektua egin du. Hurrengo alean lanen berri ematen dugu. Nolanahi ere, mendiarekin lotuz, ehiztariak egindako eskaerari erantzunez, Udalak Oilargata alderdian 243 metro inguruko pista hormigoitzeko laguntza lortu du. Gobernuak 21.341,70 euroko inbertsioa onartu du eta 13.872,11 euroko subentzioa eman du. Lan hauek auzolanean egingen dituzte.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> Langile autoonomaok Nekazariak eta mendi langileak Nominak eta Aseguro Sozialak Lan-Kontratutarako laguntzak Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> Diru-laguntza ezberdinak Kontabilitateak IVA eta IRPF Errenta aitortpenak Elbarritasun eta jubilazio espedienteak Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

artekari@artekari.com

LESACA: Bittio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: Lo Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

iparra

Bait Iparragorri Alzori
INOTEMANPLUTA

Bilakarteko Berrak
Kuzko Berrak
Berrak Berrak Berrak Berrak

00 33 559 48 19 32

Zalain

jatetxea - hostala

14 logela bainu
eta TBrekin

Zalain auzoa s/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

BORTZIRIAK

Ttipi-Ttapa Telebistaren etena salatu dute Mankomunitateak eta alkateek

Ttipi-Ttapa Telebistan martxan jartzen laguntzeko deia luzatu dute

ttipi-ttapa

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta bortz herrietako alkateek **Ttipi-Ttapa Telebista**ren etena dela eta idatzia sinatu dute. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen murrizketaren ondorioz, egoera larria zela-eta, kinka larrian zegoela bazekite, diote oharrean, programazioa eta lan taldea egokitzeko asmoa zutela, baina **Ttipi-Ttapa Fundazioak** urtarrilaren 31n emisioa bertan behera uzteko erabakia jakinarazi zuenean, «*gutziz asaldatu ginen*», dio adierazpenak.

Hori dela eta, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta alkateek «*Nafarroako Gobernuaren euskararen aurkako hizkuntza politika*» ozen salatu nahi izan dute. Euskarazko hedabideei dagokienez, Lurreko Telebista Digitalerako lizentziak banatzeko garaian, «*gure eskualde osoa tokiko telebista izateko aukerarik gabe*» uzteaz gain, «*hedabideei zuzendutako dirulaguntzen %95eko murrizketak, aurreikusi zitekeen lehenbiziko ondorioa ekarri zuela*», **Ttipi-Ttapa Te-**



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ttipi-Ttapa Telebistak urtarrilaren 31n eten zuen produkzioa.

lebistaren etena, hain zuzen.

HERRITARREI MEZUA

Ttipi-Ttapa Fundazioari elkartasun mezua helarazteaz gain, Bortzirietako herritar eta erakundeei bertako euskarazko hedabideen defentsan aritzeko deia egin diete Mankomunitatetik, «*Ttipi-Ttapa Telebista berriz ere Bortzirietako etxeetan egotea lortu arte, sentsibilizazio, atxikimendu eta salaketa ekimenetan parte har dezaten*». Izan ere, **Ttipi-Ttapa Telebistak** «*funtzio garrantzitsua betetzen du, herri-*

tarrei hurbileko informazioa eta gozamina eskaintzen dizkie, bai eta euskaraz eskainiere.

Horrez gain, ez dugu ahantzi behar jarduera horren atzean dauden lanpostuak, gure eskualdearen krisi ekonomikoaren kolpe latzak jasaten ari den honetan.

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak euskal herritar guzietan bereziki «*euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezen, elkarlanean erabiltzeko deia*» egin du, «*Nafarroako Gobernuaren erasoan aitzinean euskararen alde-*

ko jarrera tinko eta bateratua ager dezagun guztiok.».

LIZENTZIARIK GABE UZTEA «BIDEGABEA»

Tokiko telebisten aferrari dagokionez, Lurreko Telebista Digitalaren lizentzien banaketa «*bidegabea*» dela kritikatu salatu dute Mankomunitateak eta alkateek adierazpenean, eta «*berehala, euskarazko tokiko telebistak arautzeko pausoak eman daitezela*» galdegin du. Horretarako abian diren ekimen eta mozioekin bat egiteko konpromisoa hartu du.

Euskara Mankomunitatean langile berria

ttipi-ttapa

Hautaketa prozesua gainditu ondotik, Rakel Deskarga lesakarra izanen da Bortzirietako Euskara Mankomunitateko administraria. Orain arte bi teknikari aritu dira lanean Mankomunitatean, baina astelehenaz geroztik, hilak 2, Deskarga ere hor ari da lanean. Behin-behinean ariko da lanean eta egun erdiz. 14 lagunek eman zuten izena Euskara Mankomunitateko administraria kontratatzeko egindako deialdian, eta azkenean lau baino ez ziren gelditu. Azken azterketa hiruk gaitu zuten eta hiru horietan puntuaziorik altuena jaso zuena izan zen Rakel. Dena den, bertze biak ere Mankomunitatearen lanzerrendan daude. Hainbat proba pasatu behar izan zituzten aurkeztutakoek: euskara proba, proba teorikoa, praktikoa eta ahozkoa. Horiekin batera, bakoitzaren esperientzia eta merezimenduak hartu ziren kontuan puntuazioa osatzerakoan. Bai Euskarari Ziurtagiriarekin zerikusia duten lanak egin beharko ditu administrariak.

BERA Zere inguru klase guzietako lekuetatik (zomorra, zinorro, arnionero, kuku...), eta arrotzi zuzentzen garbitu behar baduzu, deitu! Termitea eta Pipien tratamenduak.

griEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 626 567 • Zelen, 40 A • BERA

ALBERTO RETEGI

abokatuak

abokatuak

© 948 630 763 - Altxate, 17 - BERA

SUNBILLA

Sagardotegira ateraldia egingen da martxoaren 14an

Ulibeltzak Elkarteak-ek antolatutako autobusa beteta dago dagoeneko

Jaione OTXANDORENA

Ulibeltzak Elkarteak datorren martxoaren 14rako Etxeberria sagardotegira joateko autobusa antolatu du. Zerrenda atera bezain laister, autobusa beteta zegoela erran zuten antolatzaileek, eta beraz, ikusten da jendea sagardotegirako gogoarekin dagoela.

Autobusa herritik 13:00etan aterako da eta itzulerako ordua momentuan erabakiko da. Jende dezente bilduko denez, ziur giro ederrean egingen dutela ateraldia.

Ulibeltzak-eko zuzendaritza berria

Ttipi-Ttapaaren aurreko alean aipatu bezala, aurten aldatuko da



ARGAZKIA: VIDAL IBARRA

Hurrengo hitzordua Aizkorri

Urte berria hasiz geroztik, mendi ateraldiak eginez dabil Ulibeltzak Mendi Taldea. Mendaur, Saioa, Beriain eta Lizaieta gainak bisitatu ondotik, hurrengo iteera Aizkorri (1.528 m) egingen dute. Martxoaren 15ean joanen dira. Hilaren 28an, berriz, Xabierera joatea pentsatua dute.

Ulibeltzak Elkarteak zuzendaritza batzordea. Larunbat honetan, martxoak 7, egingen da bilerak elkarrekin duen

egoitzan, 18:00-etan. Botazio bidez aukeratuko dira datozen bi urteetan zuzendaritza batzordea osatuko duten

bazkideak.

Hurrengo alean emanen dizuegu bilera horretan ateratako emaitzen berri.

MALERREKA

Agenda 21 lantaldeak akitu du bere lana

ttipi-ttapa

2007an zonalderako iraunkortasun plan estrategiko bat egiteko asmoz abiatu zen bidia iritsi da, oraingoz, helmugara. Prozesua gidatu duen Terra-Prometeako lantaldeak akitu du bere egitekoa, eta eskualderako iraunkortasunerako ekintza plana otsailaren 9an aurkeztu zuten. Hiru estrategia, 10 programa eta datozen lauzpabortz urteetan gauzatzeko 57 ekintza zehaztu dituzte eta lehentasunaren arabera banatu. Hemendik aitzinera, Udalak eta Mankomunitatea izanen dira, Cederna-Garalurren laguntzaz, ekintzak gauzaten saiatuko direnak.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

ITUREN

Korrikaren aldeko bertso afaria larunbatean Aurtizko Ostatuan

Julen Zelaieta eta Ander Lizarralde bertsotan ariko dira

Arkaitz MINDEGIA

Ibintza Kultur Taldeak Korrikaren aldeko bertso-afaria antolatu du larunbat honetarako, martxoak 7, Aurtizko Ostatuan. Afalondotik Julen Zelaieta eta Ander Lizarralde bertsolarien saioa aditzeko modua izanen da eta ondotik, Miriam eta Arkaitz trikitilariak kantu eta dantzaz gaua pasatzeko aukera izanen da.

Afaria sagardotegiko menua izanen eta 22 euro kostako da. Norbaitek apuntatu nahi badu Aurtizko Ostatuan eman beharko du izena. Ahalik eta azkarren apuntatu lekua mugatua baita.

Erasun azpitzapeldun

Urrezko Aizkolarien Binakako finala jokatu zen Azepeitian otsailaren 22an. Gazteen mailan, nahiz eta lan polita egin, Erasun eta Kañamaresek 14 segundogatik ez zuten irabazi. Saralegi eta Olano

leitzarrak gailendu zitzaizkien. Halere zorianak egindako lanagatik!

Eskolako irteera

Martxoaren 17an, 3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleak Oteiza museoa (Al-


tzuz, Nafarroa) bisitatzera joanen dira eta ondotik, Artic izotz jauregira (Uharte, Nafarroa).



ARGAZKIA: A. MINDEGIA

V. Sagardo Eguna Bartzelonan

Azken urteetan bezala, Miriam Altzuri eta Arkaitz Mindegia trikitilariak, Jon Barberena, Ion Ansa eta Ander Lizarralde bertsolariekin batera, Bartzelonako Euskal Etxeko V. Sagardo Egunean egon dira. Otsaileko azken asteburuan egon ziren eta urtetik urtera jende gehiago biltzen diren seinale, aurten 90 lagun bildu ziren bazkaltzera. Bazkalondotik nahi adina kantu eta bertso izan ziren gure boskotearen eskutik. Arratsaldean euskal tabernetan triki-poteoa egin zuten, karriketan euskal dantzak dantzatzuz. Miriam eta Arkaitz besta hau sortu zenetik ez dute hutsik egin eta gero eta giro ederragoa aurkitzen dute.



PERTSONAIA

Unai APEZTEGIA

Martxoaren 7an omenaldi ttiki bat egingen zaio

1996ko apirilaren 13an debutatu zuen Elizondon Aspe enpresarekin. Geroztik hainbat garaipen eskuratu ditu: 1993an Nafarroako buruz-buruko txapelduna izan zen, 95ean Munduko Kopako txapelduna, 96an ETB Torneoko binakako txapelduna, 99an bigarren mailako Espainiako binakako txapelduna eta 2002an bigarren mailako azpitzapelduna. Aspe enpresan 12 urte egin ondotik, abenduan amaitu zuen kontratua. Orain, herritarren omenaldia jasoko du, larunbatean, hilak 7. 20:20ean Aurtiztik autobusa aterako da Hernaniko Olaizola sagardotegira.

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ERROTAR
harategia

Bertako produktuenak

Eztegera, 3 - BERA
Tel/Fax: 948 630 088

BORTZIRI
UNSION ANAIK

Sukalderako altzariak

Bereau etxea • LESAKA
Tel: 948 637 200 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

DONEZTEBE

Erretzeari uzteko kanpaina egingen da martxoan eta apirilean Liburutegian

Osasun Zerbitzuek antolatu dute eta Malerrekako herritar guztiak daude gonbidatuak

ttipi-ttapa

Malerrekako Osasun Zerbitzuen ekimenez, erretzeari uzteko kanpaina egingen da martxoan eta apirilean Malerrekako erretzaile guztiei zuzenduta. Lehenbiziko saioa aste honetan egitekoa zen, asteartean, baina oraindik ere badago aukera. Martxoan bertze lau saio egingen dira, hurrengo asteartetan, hain zuzen: hilaren 10ean, 17an, 24an eta 31n. Horrez gain, apirilaren 7an ere bertze bat egingen da.

Taldeka banatu eta Doneztebeko Liburutegian bilduko dira, eta 12:30etik 14:30era mediku eta erizainekin solasaldian ariko dira interesatuak.

Erretzeari uzteko Malerrekako halako ekimen bat antolatzen den lehenbiziko aldia da.

Bortz doneztebar Elbrusera

Kaukason dago eta Eu-

ropako mendirik altuena da Elbrus (5.642 metro). Gainditu beharreko desnibela handia da eta hori eta altuera izaten dira mendizaleen la-

nik haundienak. Elbrus mendiko azken aterpea, *Barrels*, -euskaraz *Kupelak*- 3.900 metrora dago, eta azken egutenean 1.782 metroko al-

tuera igo behar da. Bada horixe egin nahi dute bortz doneztebarrek. Uztailaren 18tik 30era bitartean Elbruseraino igotzen ahaleginduko di-

ra Alejandro San Miguel *Sanba*, Igor Agesta, Joxerra Aldabe, Tomas Sanz eta Roberto Ordax.

Uztailaren 18an Bilbotik hegazkinez Bruselara abiatuko dira, handik Moskura joateko. Eta poliki-poliki azken aterpera ailegatuiko dira uztailaren 21ean. Elbruserako bidea hartu aitzinetik maila baxuagoko mendiekin egingen dute saikera, Pas-tukov harkaitzetara (4.650 metro) joanez, adibidez.

BI SAIKERA

Uztailaren 25ean egingen dute Elbrus igotzeko lehenbiziko ahalegina eta biharamunean berdin egingen dute. Uztailaren 27tik aitzinera behearako bidea hartuko dute eta 30ean etxera ailegatuiko dira. Dena den, mendian ibiltzeaz gain, Mosku aldean zenbait eraikin bisitatzeko ere aprobeztatu dute.



ARGAZKIA: I. UGALDE

Inauteriak giro ederrean

Aurtengoak ere eman du berea. Ortzeguneko triki-poteoarekin hasi eta larunbata bitarte egin ziren inauteriak Donezteben eta herritarrek zein hurbildutakoek ederki pasatu zituzten. Ortziralean baserrietan ibili ziren eskean gazteak eta larunbateko ekitaldirik jendetsuena karrozen desfilea izan zen. Denetarikoz mozorro eta karrozak ikusi ziren: garai bateko *Verano Azul* -argazkian-, pailazoak, txinatarrak, errugbilariak, erizain eta medikuak, «Golfak», traktore horia, piratak, Bermejo justizia ministro ohia eta Garzonen arteko ehiza topaketa...

APARAN, S.A.

BOIXOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoa (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

LEGARRA

Produktu batzuetan kolore baikoitzak bere deskontua du:

DESKONTUAK

- -60% eta -50%
- -40 % oparietan
- -30 %
- -20 % oparietan

Tel/Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

MALERREKA

Oizko ur depositu berria eraikitzeko lanak laster hasiko dira

Udalak aste honetan erabakiko du zein enpresari esleitu obra

ttipi-ttapa

Herriaren gainean eraikiko den ur depositu berriaren lanak laster hasiko dira Oitzen. Nafarroako Gobernuak eskatutako laguntza onartu ondotik, joan den otsailaren 20an akitu zen obrak egiteko lehiaketan parte hartzeko epea, eta Udala aste honetan erabakitzea zen lehiaketara aurkeztutako eskaintzen artean zeini esleitu lana.

124.000 euro inguru kostako da depositu berria eraikitzea eta gastuaren %70a Nafarroako Gobernuak bideratuko du.

Alberto San Migel alkateak aspaldi ohartarazi zuen depositu berri baten beharra zegoela herrian. Bere garaian, **Ttipi-Ttapa**ri adierazi zionez, «*lehenagoko iturri zaharrak ez du gortzeko aukerarik ematen, eta depositua herrian bertan sartua gelditu da*». Gaineratu zuenez, «*gazteak etxe berriak*

egin dituzte herri bazterretan eta oraingo depositua ez omen da nahikoa».

Zubietako Herriko Ostata hartzeko deialdia

Urtarrilean, Zubietako Udalak lehiaketa irekita atera zuen Herriko Ostata errentan hartzeko aukera. Urtarrilaren 24an akitu zen eskaintzak aurkezteko epea baina ez zen interesaturik agertu. Horregatik baldintzak aldatu eta bigarren deialdia egin eta bigarren deialdia egin erabaki zuen Udalak. Otsailaren 28an akitu zen bigarren deialdi horretara auzuetako epea baina lerro hauek idazterakoan ez genuen lehiaketaren nondik norakoen berririk. Dena den, aipatu, lehenbiziko deialdian hilabeteko errenta 750 eurotan ezarri zutela, baina bigarrenean, aitzinekoan inor aurkeztu ez zelako, 600 eurora jautsi zuten, bi kasuetan, %16ko BE-

Za gehitu behar zaio. Errentaren iraupena

bortz urtekoa izanen da eta bertze horrenbertze

luzatzeko aukera ere aurreikusten da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Saldias, Eratsun eta Labaiengo ikasleak inauterietan Otsailaren 20an, Beintza-Labaien, Eratsun eta Saldisko eskolek inauteriak ospatu zituzten. Aurten hiru ikastetxeetako neska mutikoak Txorimaloz moztortu ziren eta gurasoen laguntzaz elkarri bisita egin zioten. Lehenengo Eratsunen eman zuten buelta trikitixa doinuz karririk alaituz, bertan haiketako egin eta Saldiasen txanda iritsi zen, herriko karriketatik ibili ondoren, denak elkarrekin bazkaldu eta Labainera! Labaiengo txangoa eginda, a zer sorpresa, eskolan merendua prest zegoen! Lerro hauen bidez, hiru eskoletako irakasleek gurasoei esker bereziak eman nahi dizkiete.



BEINTZA-LABAIEN

Nafarroako Gobernuaren baimena jasotzean zabalduko da hilerri berria

180.000 euro kosta dira lanak eta Udalak %68ko subentzia hartu du

ttipi-ttapa

Beintza-Labaiengo herritarrek hilerri berria erabiltzeko aukera izanen dute laster. Lanak akituak daude eta orain Nafarroako Gobernuaren baimenen zain daude ateak zabaldu ahal izateko.

1.254 metro koadro ditu hilerri berriak, eta familia bakoitzari lur zati bana eman zaio, denei berdina. Horrez gain, sarreran egurrezko estalki bat ere egin dute.

180.000 euro kosta da lanak egitea baina Nafarroako Gobernuak proiektua subentzionatu du, gastuaren %68, hain zuzen.

Frontoia estalkiarekin

Beintzako frontoiari estalkia egiteko lanak ere akitu dira. Egurrezko egitura paratu dute eta 116.000 euroko aurrekontua izan dute lanek. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, berriz, %70ekoa izan da.

Aizkoraren Museoa

Aizkoraren Museoa egiteko asmoak aurrera segitzen du. Udalak museoaren aurrekontu eta guztiokostena aurkeztu du Nafarroako Gobernuan eta horionartu zain daude. 130.000 euro izanen ditu Udalak proiektuan gastatzeko.

Harrizko gurutzea konpontzen

Otsaileko haizete gorrek herriarentzat garrantzi berezia duen harrizko gurutzea hondatu zuen. Aizkoraren Museoa eraikiko den tokian zegoen gurutzea, Beintza eta Labaienen artean eta herritarrek tristuraz hartu zuten gertatutakoa. Halere, badirudi lehengo tokian ikusi ahal izanen dugula berriz ere. Principe de Viana Institutioak gurutzea bere gain hartu du eta konponduko duela esan du. Behin berrituta berriz bere tokian paratuko dute.



Itxura hau hartu du hilerri berriak.

ARGAZKIA: JAVIER LARUMBE



Frontoiari estalkia paratzeko lanak akituak daude dagoeneko.

ARGAZKIA: JAVIER LARUMBE

Donamaria'ko Benta

Sukaldaritza tradizionala eta herritzailera

Xarma beretia duten ezkontza txikietan adituak

Jardunaldi gastronomikoak

Donamaria info@donamariako.com
Tel. 948 450 708 www.donamariako.com

ZUBIONDO
Jatetxea

agardotegia jatetxean

Alasta karrika
C/ de BERRITZA
BERA NAFARROA

SOBEKO

RESTAURANTE

Plaza Autza - LESAKA
Tfn: 948 637 626

BEINTZAKO OSTATUA

☎ 948 45 00 14

web: www.berriestatuak.com

11701 BEINTZA LABAIEN

ORBELÁ

deskontuak

DENDA HAUTAN EROSTEAGATIK



SANSINENA tailerra • ELIZONDO
%10eko deskontua olio-aldaketetan

JUAN J. PIKABEA

PIKABEA arropa-denda • DONEZTEBE
%10 (gailuz marka batzuetan izan ezik)

IPINGI

IPINGI arropa-denda • ELIZONDO
%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan

Deñe

DENE lentzeria - mertzeria • LESAKA
%10eko deskontua lentzerian

AYLA

argazkigintza fotografia

AYLA argazki-denda • BERA
%10 kopia digitaletan, NAN argazkietan



AMAIA Estetika Zentroa • DONEZTEBE
%5 kosmetikan, %10 oparietan

SARIDUNAK:

- 3 liburu (Erein): Fausti Juanikorena (Zubieta)
- Martiko produktuak: Jexux Ballon (Elizondo)
- Txapela Buruan 2 kamiseta: Blanca Perez (Etxalar) Miren Iguzkiagirre (Arantzeta)
- Pirritx, Porrotx eta Mari Motos: Izaskun Zubialde (Zubieta)
- 2 kamiseta (Onddo ta punto): M^a Elena Irigoin (Donamaria)
- Iñaki Dieguez diska (Ferminmusic): M^a Cruz Errazkin (Etxalar)



Donostiako Aquariumerako
2 sarrera:
Aintzane Ollokiegi (Etxalar)

ORAIN www.ttipi.net

bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58



ttipi txartela rekin
beti irabazten da!

21 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
astebeneretik ostiralera
09:00-16:00 Tel. 948 63 54 58

1 HIRU LIBURU

Pelo Telleriaren amets arak (10kuki)
Kensukeren mundua (1-12 urte)
Fatum (1-18 urte)

Lote 1

ekar fundazioa

www.ekar.com

2 BI KAMISETA

Lote 1

oninart

www.oninart.com

3 JANTZIAK

Soneku, kamiseta, pertsek... zeh azkenak

2 Lote

txapela buruan

www.txapelaburuan.com

4 ARGIA HARPIDETZA

3 hilabetekoa

Lote 1

argia

www.argia.com

5 SORGINAK MAHAJ-JOLASA

Lote 1

UO

www.uo.net

6 Escena dantza jaialdia

"Pagin... Flexia"
Lagun Multimedia & Crea of

"Solando despiertos"
Lote Alde eta Cruz Ibañeta

10 Lote

www.berghoudala.net

ttipi saskia **TTIPI SASKIA**ren ZOKKETAN
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE
Bidali SMSa idatziz **TTIPI SASKIA** eta zure IZEN-DEITURA **5767** ra

Mendukilo
Leze turistikoa Cueva turística

5 sarrera bikoitz eta liburu bat

ASTIZ (Nafarroa)
948 396 095

Zozketan parte hartzeko epia: martxoaren 11ko irabazpen orain, martxoaren 18ko azkeneko irabazpena da. Martxoaren 11tik 18ra (9:00-16:00). Zure bidaltutako txipi-saskiaren bitartez gurekin dira zuzenbidezko loturak dituzten zure eskaintza berri erabaki. Zuzenbide edo zuzenbidearen bitartez gurekin deitu 948 63 54 58ra.

ARANO

Korrikaren alde 2. eskuko gauzen azoka egingen da martxoaren 14an

Horrez gain, gauean herri afaria egingen da

Ainhoa eta Kontxi

Gauza jakina da aurren ere Euskal Herriko hainbeste herritatik Korrika pasako dela. Aranon, Korrika herritik bertatik pasatzen ikustea ez da erraza izango, baina Kaxetatik bai, pasako da, Goizuetatik Hernani alde-rako ibilbidean. Korrika martxoaren 28an pasako da hemendik, eta aurretik lantxo batzuk baditugu egiteko, kilometroren bat euskararen alde erosi nahi badugu!

Korrika aitzakia hartuta, martxoaren 14an, Korrikaren aldeko 2. eskuko gauzen azoka egingen dugu. Azoka horretan, herritarrek eta borondatea daukan edozeinek eramandako trasteak jarriko dira salgai. Denon artean atondutako azoka izango da eta, saltzaile eta erostun denok izango gara modu batean zein bestean.

Trasteak azokara eramateko bi modu daude: egunean bertan azokara norberak eraman edo 948 514299ra deitu eta

etxetik pasako dira bila.

Horretaz aparte, egun horretan herri afaria egingen da.

Museko finala ostiralean

Kontzeju tabeman antolatutako urteko mus txapelketaren finala, ostiral honetan, martxoak 6,

izango da. Lehen eta bigarren postuak Maria Jesus-Jose Ramon eta Antton-Maria Jesus bikoteen arteko lehia erabakiko dira eta hirugarren eta laugarren postuak Esther-Maixus eta Marixus-Joxe Antonio eta Ixiar-Joseba eta Inaxita-Bittor bikoteen artean.

Urtebete pasa da Imanol eta Ainhoak mus txapelketa antolatu zutenetik eta gustura daude jendearen erantzunarekin. Hilabeteko azken ostiralean elkartu eta mus seian jokatzeko oso aitzakia ona da etxe zuloatik atera eta jende artean biltzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Legarreta finalerdian

Xabier Legarreta herriko semea Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalerdian ariko da larunbat honetan, martxoak 7, Antsoainen. Joan den otsailaren 14an lortu zuen larunbateko saiorako txartela Legarretak, eguneko sailkapen nagusian bigarren geldituta, Xabier Silveira lehen sailkatuarengandik puntu bakarrera. Larunbatean Antsoaingo antzokian jokatuko dena hirugarren finalurrekoa izanen da eta 17:30ean hasiko da.

ESKUALDEA

‘Mikel’ eta ‘Naroa’ izenik erabilienak

ttipi-ttapa

Ttipi-Ttapan Nafarroan hartzen duen eskualdean 312 haur jaio ziren 2008an, 161 neska eta 151 mutiko, beti ere Ttipi-Ttapan bildutako datuen arabera. Beraz, 2007an baino 51 haur gehiago jaio ziren. Mutikoen artean, aitzineko urtean bezala, *Mikel* izan zen izenik erabiliena, 11 kasurekin (2007an ere 11 izan ziren), *Beñat* bigarrena zortzirekin eta *Julen* hirugarrena, seiarekin. Bortz *Aitor* eta launa *Unax*, *Aimar*, *Mattin*, *Oihaneta* *Eneko* jaio ziren iaz gure eskualdean. Aipatzen da mutikoetan 84 izen ezberdin erabili zirela.

Nesken kasuan, *Naroa* izan zen gehien erabili den izena, zazpi kasurekin. *Nahia* izena ere zazpi neskei paratu zitzaion, baina kasu batzuetan ‘h’ jarri dute izena, berte batzuetan gabe eta kasu batean ‘y’-rekin, *Naya*, alegia. Bi izen hauen ondotik, *Kattalin*, *Leire*, *Uxue*, *Ane* eta *Ainhoa* datoz, izen horietako bakoitza 5 neskei paratu baitzieten. 2007an *Uxue* izan zen izenik erabiliena, zortzi neskei jarri baitzieten izen hori. Nesken kasuan ere hainbat izen ezberdin erabili ziren 2008an, 92 guzura.

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA eta LINDURRENBORDA

Txotx denboraldia irekia

Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA: Tolosa auzoa • LEKARREZ 948 603777 • 026 604317

LINDURRENBORDA: Nafarro auzoa • LEKARREZ 948 603772

Lizardi
Telekomunikazioak

TDT Instalazioak
TB Instalazioak (satelite, lurrekoak)
Instalazio individualak eta kolektiboak
Portero automatikoak
Ebeko hari musikala

Tel. 670 415 720
joanlizardi@hotmail.com

GOIZUETA

Eguraldi ona eta giro bikainarekin joan dira aurtengo karnabalak

Aurten 60 lagun ibili dira Mozorro Taldean, inoiz baino gehiago

Esteban AROTZENA

Hausterri Eguneke eguzki ditziratsurik gabe, baina eguraldiak ongi lagundu zuen Zalduniñote, Asteleniñote eta Astearteiñote egunetan. Giroa ere kategorikoa izan zen, festaren antolatzaile, protagonista eta ardatz den Mozorro Taldearen barrenean batez ere. Aurten, gainera, markak hautsi ditu honek, 60 lagunek osatu baitute taldea. Iru-di ikusgarria eskainiz astelehenean mendian eta asteartean herrian.

Astearte ilunabarreko mozorro festak ere ongi eutsi zion azken urteotan hartutako maila ederreri. Ijito eta Andaluziako bisitari asko ikus zitekeen kalean, baita larrialdietarako medikuaren gaiari buruzko hainbat erreferentzia zorrotz ere, besteak beste. Larunbateko Kontuen Egunaren zain zegoen herria, Mozo-

rruok batez ere, lerro hauek idazterakoan.

Desafioak eta markak

Aurreko mendearen hasieran eta erdialdean, legenda bihurtutako hainbat desafio jokatu ziren herrian. Ba berri, ohitura heldu dela dirudi, ondoren aipatuko ditugun bi adibideen arabera: kuadrilla barreneko desafioaren ondorioz, Zibolako Mielanjel Loiarde gazteak ordubete eta 33 minutuan egin berri du Mandoegiko tontorretik jirabuelta, plazako iturritik aterata. Marka ederra, alajaina!

Maiatzaren 2ko Txinoko festatako ere, herriko Soratxikiko jirabuelta zeinek lehenago jo apostua itxita dago bi gazteren artean, baina kontratua sinatu gabe dagoenez, ez dugu protagonisten izenik ematen oraingoz.



ARGAZKIAK: ALAITZ ESKUDERO

Aurtengo inauterietako irudiak dira: Mozorroak baserri bateko atarian dantzan; Mozorro Taldea Zahagi dantza hasteko prest eta Zahagi dantza dantzatzen.



Plakodur
Elikaria eta Plakodur

Eskainia edo pladurraz egindako mola gutxietako lenak

Sabana • Pantak • Altxaria • Isotomendua
Euzko karrak Sabana

info@plakodur.com • 943 008 544
www.plakodur.com



udana
salazones



UNE-EN-ISO 9001
LAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADA
BCC-02-0199



Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest

Alkaiaga Ind. • Barreta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA • Tfno: 948 631 536 • Fax: 948 631 550



PEDRO GARMENDIA, S.A.

Tel.: 948 580 431 - 948 580 436 - 608 977 685
Faxa: 948 580 973
ELIZONDO (Nafarroa)
garmendia@red.renault.es



KANGOO KEX EXPRESSION 1.5DCI 85CV

ABS - 2 Airbag - Irrati MonoCD
Alboko ate lerrakorra
Aire-girotua
Pack elektrikoa
Pintura metalizatua



KANGOO COMBI EXPRESSION 1.5DCI 85CV

ABS - 2 Airbag - Irrati MonoCD
Alboko ate lerrakor bikoitza
Maletero-lekuko ate altxagarria
Aire-girotua - Irrati Mono CD
Pack elektrikoa
Pintura metalizatua



MASTER 2.5DCI FURGON 3500 120CV

ABS - 2 Airbag
Alboko ate lerrakorra
Aire-girotua
Txasis luzea
Altuera gehiagokoa



GRAN MODUS DYNAMIQUE 1.5DCI 85CV

ABS - 4 Airbag -
Satelite bidezko
irradi MonoCD
Aleaziozko-hagunak
Pintura metalizatua
Aire-klimatizagailua
Abladura mugatzailea
AUTO BAT BAINO GEHIAGO



MEGANE EXPRESSION 1.5DCI 105CV

ABS - 4 Airbag
Satelite bidezko
irradi MonoCD
Pintura metalizatua
Aire-klimatizagailua
Abladura mugatzailea



MODUS DYNAMIQUE 1.5DCI 85CV

ABS - 4 Airbag -
Aleaziozko-hagunak
Larruzko heldulekia
eta bolantea
Aire-klimatizagailua
Irratia MonoCD MP3
Abladura mugatzailea



PRIV



GRAN ESPACE EXPRESSION 2.2DCI 150CV

Txasis luzea - 7 plaza
ABS - 8 airbag
Auto gaineko barrak
Aire-klimatizagailua
Pintura metalizatua
Irrati CD (6 CD kargatzekoa)
urrutiko kontrolarekin

LAGUNA PRIVILEGE 2.2DCI 150CV

ABS - 8 airbag - Parkineko freno automatikoa
18"ko aleaziozko haginak
Pintura metalizatua - Bi-zona klimatizagailua
Pneumatikoen presio detektatzailea
Xenon argiak - Argi garbigailua - Bluetooth
Larruzko tapizeria - Abiadura mugatzailea
CABASSE Irratia - 6CD aurretik kargatzekoa
MP3 - SAFE - ASR - ESP
GARANTIA: 2011ko martxo bitarte



TRAFIC 1.9DCI FURGON 100CV

ABS - 2 Airbag - Alboko ate lerrakorra
Aire-girotua - Txasis luzea
Egurrezko barne estaldura
Altuera gehiagokoa



CLIO PRIVILEGE 1.5DCI 85 CV

ABS - 4 Airbag
Xenon argiak - Argi garbigailuak
Gibeleko hurbiltasun radarra
6CD kargatzeko irratia - MP3
Nabigatzailea
Abiadura mugatzailea
Pintura metalizatua
Aleaziozko haginak



CLIO DYNAMIQUE 1.5DCI 85 CV

ABS - 4 Airbag
Satelite bidezko irratia MonoCD
Aleaziozko-haginak
Pintura metalizatua
Aire-klimatizagailua
Abiadura mugatzailea



SCENIC DYNAMIQUE 1.5DCI 105CV

ABS - 4 Airbag -
Irratia MonoCD
Aleaziozko-haginak
Larruzko heldulekua
eta bolantea
Aire girotua
Abiadura mugatzailea

TWINGO PRIVILEGE 1.2 70CV

Pack elektrikoa
Aire girotua
Irratia MonoCD



KANGOO EXTREME 4X4 90CV

4 gurpiletako trakzioa
Aire girotua
Aleaziozko-haginak
Irratia MonoCD
Auto gaineko barrak
Alboko konpartimenduak,
hegazkinetako erakoak
AUTO BAT BAINO GEHIAGO

LEITZA

Udaletxeko obrak egiteko lehiaketa zabaldu du Udalak

Ostegun honetan bukatuko da eskaintzak aurkezteko epea

ttipi-ttapa

Udalak lehiaketara atera ditu Udaletxea zaharberri eta oztopo arkitektonikoak kentzeko lanak. Hasierako aurrekontua 298.468,98 eurotan ezarri dute –BEZ barne– eta lanak gehiezin lau hilabeteko epean egin beharko dira. Informazio gehiago Herriko Etxeko idazkaritzan aurkituko duzue. Eskaintzak aurkezteko epea ostegun honetan, martxoak 5, bukatuko da.

Mendialdeko Agenda 21

Lehen faseko azken pausoa eman du Leitzaldeko herriak bere baitan hartzen dituen Mendialdeko Agenda 21ek eta orain Ekintza 21 izenekoari ekin beharko diote Udalek, Cedema-Garalurren laguntzarekin. 2007ko ekainean ekin zion Terra-Prometeako lantaldeak Agenda 21 egitasmoa osatzen duten bi faseetan lehenari: diagnosiari. Diagnosi osatuta, etorkizunerako garrantzitsuak diren proiektuei forma ematen aritu ziren gero. Lau estrategia, hamar programa eta datozen urteetan Araitx, Arano, Areso, Betelu, Goizueta, Larraun, Leitza eta Lekunberrira-



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

295 kiloko harria bizkarreratu du Inaxiok

Lehenbiziko saiakeran ez, baina bigarrenean bai. Otsailaren 22an, Inaxio Perurenak 295 kiloko harri errektangularra bizkarreratzea lortu zuen Azpeitian. Zama horretako harria jaso duen harri-jasotzailerik gazteena da, 25 urte baititu; urtarrilaren 10ean betetakoak. Gainera, 300 kiloko zenrendatik bortz kilora geratu da Leitzako gaztea. 2007an 290 kiloko koardoa leporatu zuen Asteasun. Joan zen abenduaren 31n, berriz, lehen aldiz ahalegindu zen 295 kilokoa leporatzen, baina birritan saiatu arren, ez zuen lortu. Azpeitiko saioan, ordea, lehenik 250 kilokoarekin beroketa egin, eta aita alboan zuela heldu zion 295ekoari. Leitzarrak 15 segundo eta 30 ehunekotan jaso zuen harria. Inaxioren marka homologatuta geratuko da. Dopin kontrola egin zuen, eta Euskadiko Herri Kirol Federazioko epaileek kontrolatu zuten leitzar gaztearen marka ahalegina. Aurten 234 kiloko harria esku bakarrarekin jasotzen ahaleginduko dela aitzineratu du.

ko lehen tasuna duten 58 ekintza zehaztu dira.

Ekintza horien artean, **komunikazio arloan**, garraio publikoa hobetu eta asteburuetan gaueko garraioa bultzatu edo Internet eta saketako sareak hobetzea daude.

Ingurumen arloan, uraren erabilera eta kon-

tsumoa aurrezteko plana, Nafarroako Hondakin Partzuergoan parte hartzea edo etxeko konpostaje proiektua martxan jartzea dira lehen tasun batzuk. Alternatibagisara biomasaren erabilera landu nahi da.

Hirigintza eta lurralde antolaketarako Udalak koordinatzea propo-

satu da eta «Nafarroako birika» izateagatik konpentsazioa negoziatu nahi da Gobernuarekin. Etxebizitzaren arazoa ere konpondu nahi da.

Kultur eta kirol arloa elkarlanean garatu eta **enplegua** hobetzeko lan-mahaia osatu nahi da. **Abeltzaintza eta nekazaritzaren errealitatea**

FLASH

Hondakinen tasa berria

2008ko urrian proposatu arren, joan den otsailan jarri ziren behin-betikoz hiri hondakin solidoen bilketako tasa berriak. Hauek dira:

-**Herriguneko etxebizitzak:** 27,55 €.

-**Herrigunetik aparteko etxeak:** 13,77 €.

-**Bulegoak:** 44, 13 €.

-Komertzioak

*51,70 € (kioskoak, botikak, liburutendak...).

*62,61 € (arropa-denda, ferreteria, altzari-denda, harategiak...).

*75,66 € (araindegia, supermerkatuak...).

*111,93 € (jatetxeak, hostalak, pentsioak, 4 logela baino gehiagoko landa-etxeak...).

*232,02 € (hotelak, kanpinak, gasolinerak...).

*90,79 € (ostatua, elkarteak...).

-**Depuradorak, zahar etxeak...:** 321€.

-**Ikastetxeak eta haurtzaindegia:** 164,52€.

-Industriak

*0-500m²: 57,97€.

*500-1.000m²: 121,14€.

*1.000-3.000m²:

242,21€.

*3.000-5.000m²:

363,35€.

*5.000m²tik gora: 688,47€.

ere landu nahi da eta **irakaskuntzan**, 0-3 urte bertarako plazak gehitu.

Zinema

Asteburu honetan ere film ezagun bat ikusteko aukera izanen da: Clint Eastwooden *El Intercambio*. Ostiraleko saioa 22:30ean izanen da eta igandekoa 19:30ean.

Ez izan dudarik, aukerarik hoberena:

Deredua da!



ARESO

Medikuaren kontsultak berriz zabaldu ditu ateak

Astearte goizetan 8:00etatik 9:00etara egonen da irekia

Juana Mari SAIZAR

Beste hainbat herritan mediku eskasiagatik kontsultak ixten ari badira ere, gurean berri onak ditugu. Herriko kontsuta berriz ireki baita. Asteartero 8:00etatik 9:00etara egonen da zabalik eta horretarako aurreko egunean txanda hartu beharko da.

Badirudi, bere garaian itxi izanaren arrazoia zaintzako medikuen egoera zalantzarria zela eta orain, moldaketa horiek egin eta gero, Leitzako bi medikuak txandaka herrira etorriko dira. Osasun Saitetik kontsultategia behar bezalako baldintzetan egoteko suitzalgailuak eta kanpoaldean errotulua falta zirela esan zuten, eta Udalak jarri ditu.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Denboraldi batez itxita egon ondotik, berriz zabalik dago kontsulta.

Internetekin bueltaka

WIFI teknologiaren seinalearekin aspalditxoan arazoak izan ditugu herrian eta horri aterabidea bilatzeko, Udalak enpresa berri bati eman dio mantentze lanen ardura. Martxan

ongi jartzen ari dira baina horretarako *router*-a etxeetatik udaletxera eraman behar da berriro konfiguratzeko. Oraingoz arazoa desagertuko dela dirudi.

Dirulaguntzak

Hezkuntza eta hezike-

ta alorreko dirulaguntzak emanen ditu Udalak ikasten ari diren haur eta gazteendako. Gehenez 100 euro emanen da pertsonako eta ekintzako. Horretarako egiaztagiria eta inprimakiak bete beharko dira, eta udaletxean utzi.

TEKNOLOGIA

2009ko abenduan itzalaldi analogikoa

ttipi-ttapa

Hasieran, aldaketa 2010eko apirillean etorriko zela iragarri zuten, baina azkenean, lehenagotik etorriko da itzalaldi analogikoa Nafarroara. Ipar Euskal Herrian, berriz, 2011n izanen dute.

Hilabeteak aitzineratzea erabaki du Nafarroako Gobernuak eta aurtengo abendurako telebistaren seinale analogikoa desagertu egingen da. Itzalaldi analogikoa izanen duten lehen nafarrak, Erribera eta Lizarra ingurukoak izanen dira. Ekainean izanen da hori. Abenduan, ailegatuiko da aldaketa gure eskualdera.

Halere, abendutik aitzinera ere, eskualdeko lau herritan emisio analogikoa jasoko dute: Leiza, Goizueta, Areso eta Aranok, hain zuzen. Izan ere, lau herri horiek Jaizkibelgo (Gipuzkoa) errepikagailutik hartzen duten seinalea, eta beraz, 2010eko apirilera arte, Gipuzkoan itzalaldia gertatzen den arte, orain bezala segituko dute. Bertzalde, aipatu, Nafarroan ETB Lurreko Telebista Digitalean ikusteko aukera airean segitzen duela oraindik.

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizazio
- Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa • 20004 IRUN • Tfnoa 943 623 130

Iñaki Alzueta margoak

Profesionalitate eta irakuntza • Dimentsio: pertsona, familia, taldeak
Fotografia • Serigrafia
Lantzerak eta berruntzeak • Pintura
Niri eta lagun amonarentzako gaiturak da

Tel. 699 802 417 • Iturbi etxea • Landibar Auzoa • 31711 UPD242UBI
gintxara.alzueta@yahoo.es

Arkiarkitekto
ARKITEKTURA ETA NINGIDINTZA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAK
INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO • Santiago, 54 behea • 948 581 931
BERA • Eztegarra, 8 behea • 948 625 232

Behetik
ANILAT JASOTZAILERAK

Añorgatik 14
Tel: 943 372 870
Fax: 943 372 870
Fax: 943 365 586
behetik@behetik.com
20018 DONOSTIA

KULTURA

Leitzatik barrena martxoaren 28an ailegatuko da Korrika 16 gure ingurura

Martxoaren 28an Leitzaldean ibiliko da eta 30ean Senperera sartuko da

ttipi-ttapa

Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira lelopean martxoaren 26an Tuteran hasiko da hamaseigarren Korrika. 11 egunez Euskal Herria zeharkatuko du eta apirilaren 5ean ailegatuko da bere helmugara, Gasteizera.

MARTXOAREN 28AN ETA 30EAN INGURUAN

Inguruan ere ibiliko da Korrika. Martxoaren 28an, larunbata, Uitzitik barna sartuko da **Leitzara** eta Basakabiko gainera **Goizuetara** jautsiko da handik Hernanira joateko.

Gipuzkoan barna ibili ondotik, Lapurdira abiatuko da Korrika, eta Uztaritzen barna **Senperera** sartuko da martxoaren 30ean. Eskualdean barna pasatuko du eguna. Senperetik **Azkainera** joanen da eta handik **Sarara**. Ondotik, **Lizuniagan** barna **Berara** ailegatuko da eta handik **Les-**



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Duela bi urteko Korrikan jendetza atera zen euskaren alde lasterka egitera.

ka aldera joko du. **Sunbillatik** pasako da gero eta **Doneztebetik** pasatuz **Narbartera** joanen da. Bertizaranatik Baztanera eginen du salto segidan eta **Oronoz-Mugairi, Arraioz, Irurita, Elizondo, Zigaurre** eta **Almandoztik** pasa ondotik utziko du gure ingurua Korrika 16k. Handik Ultzamarako bidea hartuko du.

KORRIKA HERRIZ HERRI
Ondoko taulan Korrika 16k gure eskualdearen duen bisitan, herri bakoitzean zein egunetan eta zein ordutan sartuko den jaso dugu.
Bertzalde, aipatu, Leitzaldean 48,9 kilometro eginen dituela; **Ttipi-Ttapa**ren Ipar Euskal Herriko eremuan 22 kilometro; Bortzirietan bertze 22 kilometro;

Malerrekan 9,7 kilometro; Bertizaranan 2,9 kilometro eta Baztanen, azkenik, 37,7 kilometro. Beraz, guztira, 143,2 kilometro gure eskualdean. Peto zenbaki gehienei kilometroa dagokie, baina badira ibilbide laburragoa edo luzeagoa dutenak ere.

OMENDUAK
Korrika ekimena anto-

KORRIKA ESKUALDEAN		
LEITZA	martxoak 28	16:37
GOIZUETA	martxoak 28	18:38
ARANO	martxoak 28	20:11
SENPERE	martxoak 30	10:25
AZKAINA	martxoak 30	11:16
SARA	martxoak 30	12:00
BERA	martxoak 30	12:43
LESAKA	martxoak 30	13:42
ETXALAR	martxoak 30	14:26
IGANTZI	martxoak 30	14:39
SUNBILLA	martxoak 30	15:11
DONEZTEBE	martxoak 30	16:00
LEGASA	martxoak 30	16:13
NARBARTE	martxoak 30	16:20
ORONNOZ	martxoak 30	16:32
ARRAIOZ	martxoak 30	16:52
IRURITA	martxoak 30	17:11
GARTZAIN	martxoak 30	17:24
ELIZONDO	martxoak 30	17:30
IRURITA	martxoak 30	17:55
ZIGA	martxoak 30	18:22
ANIZ	martxoak 30	18:41
BERROETA	martxoak 30	18:54
ALMANDOZ	martxoak 30	19:07

latzen den aldi oro, AEK-k norbait omentzen du. Hala, aurren, Euskal Herria etorri, euskara ikasi eta erabili, umeei irakatsi eta belaunaldiz belaunaldi euskara transmititu duten familia horiek omentzeko ditu Korrika 16k.



H. LOPEZ

FONTANERÍA • ITURGINTZA
Santiago 93, Elizondo
Tel. 948 452 126

HILABETE HONETAN
BAINUGELAKO ALTZARIETAN
DESKONTUAK

Nafarroako Gobernuak bainuak eraberritzeko dirulaguntzak ematen ditu.

H. Lopezen gestio guztiak eginen ditugu, zu etxetik mugitu gabe:

Tramite guztiak, gremioen koordinazioa...

eskatu informazioa konpromisorik gabe



EHIZA

Ehiza-baimena lehen aldiz lortzeko azterketak maiatzean egingen dira

Aitzinetik, ikastaro bat egin beharko da



ttipi-ttapa

Ehizean ibiltzeko baimena lehenbizikoz lortu nahi duenak maiatzaren 9an eta 10ean izanen du horretarako lehen aukera, eta 30ean eta 31n bigarrena. Baina azterketa egin ahal izateko, zinegetikari buruzko bortz orduko ikastaro bat egin beharko da aitzinetik. Ikastaro hau joan den urteaz geroztik derrigorrezkoa da.

Martxoaren 20an akituko da izen-emateko epea. Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentura jo beharko da horretarako. Izena emandakoen artean, batzuk baino ez dute izanen ikastaroa egiteko aukera, eta horiek zein diren martxoaren 27an adieraziko du Gobernuak. Aldi berean, orduan jakinaraziko du zeinek parte hartuko dute ikastaroan, eta azterketa zeinek eta noiz egingen duten.

Ehiza-baimena lortzeko azterketaren aitzinetik, ikastaroa egitea nahitaezkoa da joan den urteaz geroztik. Ikastaro hori apirilaren 17an, 18an, 24an eta 25ean egingen da.

Azterketei dagokienez, lehenbiziko deialdira aurkezten ez direnek, edo aurkeztuta ere, gaitzen ez dutenek, bigarren deialdian bertze aukera bat izanen dutela. Aipatu bezala, lehenbiziko proba maiatzaren 9an eta 10ean izanen da, eta bigarrena maiatzaren 30ean eta 31n.

gurekin HAZI BIZI
gurekin HEZI

MATRIKULAZIO EPEA MARTXOAREN 9TIK 16RA ARTE

BAZTAN IKASTOLA
UDAL ESKOLA PUBLIKOA

BAZTAN BAILEKO UDAJA

Herriaren etxea 31700 Elizondo, Baztan. T.948 43 34 48 - 948 50 02 54. Emaila: baztan@ikastola.net

BAZTAN

9,43 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak, iazkoa baino %66 baxuagoa

Horietatik 1,45 milioi euro Elizondoko Foru Plaza berritzeko erabiliko dira

ttipi-ttapa

9.432.700 euroko aurrekontua onartu du Udalak 2009rako. Joan den otsailaren 18an eztabaidatu zuen eta NaBairen aldeko zazpi botoekin atera zen aitzinera. UPN alderdiak kontra bozkatu zuen, ohiko gastuak «sobera goiti» doazela argudiatuz. Isabel Bidart UPNko zinegotziak **Ttipi-Ttapan** adierazi dionez, «joan den urteaz geroztik, ohiko gastuak murriztu behar direla erraten ari gara, baina ez da egin. Ez dugu erraten, behar ez diren gauzak egiten direnik, baina horiek mantentzea ere gastua da eta hori ere kontuan hartu behar da». Beraz, gastuak «kontrolatu» behar dira UPNren arabera.

Ezker Abertzaleko Julen Mitxelorenak, bere aldetik, aurrekontuak «gaitzetsi» egin ditu, «izkutuan» onartu direlako. «Ezker abertzaleko hautetsiak garen heinean, alkate zein zinegotzi batzuei aurrekontuaren zirriborroa eskatu genien, gero gure ekarpenak egiteko». Baiezkoa jaso arren, «ez ziguten eman». Halaxe adierazi dio Ezker Abertzaleak **Ttipi-Ttapan**. «Pres-

ka» eta pleno berezi batean onartu izana ere kritikatu du. Aurrekontu «bartzertzaileak» dela irizti dio Mitxelorenak, «herrietako alkateen eta Baztango elkarteen ekarpenak kontuan hartu gabe onartutakoa» delako.

Aipatu, aurtengo aurrekontua aitzineko urteetako baino ttipi-ttapa de-

la. Garai ekonomikoa onaez, eta 2008koarekin alderatuz, %66 murriztu da 2009ko aurrekontua.

FORU PLAZA ZAHARBERRITUKO DA

Aurrekontu horren zati handi bat, 1,45 euro, Elizondoko Foru Plaza berritzeko erabiliko da. Udalaren aspaldiko nahia

da plaza itxuraldatzea, eta NaBaiko Agustin Olabe zinegotziak «horretarako garaia» ailegatu dela adierazi zion **Ttipi-Ttapan** bere garaian. Hala, plaza konpontzeko ideien lehiaketa egitea da bere nahia.

Nafarroako Gobernuak plazako obretarako dirulaguntza emanen

du, 1,45 milioi eurotik 448.500 euro.

Bertze gastu aipagarrienen artean hauek daude: oihaneko lanetara 280 milioi euro bideratuko dira; eta baserrietarako bide eta pistetara 190.000 euro. Erratzuko Untxide auzoko elektrizitatean, berriz, 175.000 euro joanen dira.

Hezkuntzaren alorrean, Irurritako eskola berririen lur eremuan 95.000 euro gastatuko dira, eta herrietako eskoletan konponketak egiten 170.000 euro.

Azkenik, Jabier Ziga margolariaren lanak bilduko dituen egoitza egiteko asmoa ere badago eta horretarako 125.000 euroko partida onartu da.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Arizkongo Arrokiak kixkalita

Otsailaren 16an su hartu zuen berez Arizkongo egiten duen Arrokiak eta horren ondorioz zauritu zen 36 urteko gizonezkoa erredurekin Iruñeko Ospitalera eraman behar izan zuten. Arrokiak Eskiz harrobiaren inguruan dago, Apaioa auzotik hurbil. Hiru solairu ditu eta itxura batean, sua hirugarrenean hasi zen. Sutearekin, teilatua eta egitura bigarrenera erori ziren eta hemendik lehenbizikora. Lehen solairu hori hondakinez bete galditu zen. Oronoz-Mugairiko suhiltzaileak baserriera hurbildu zirenerako, baserria guztiz errea zegoen. Erabat hondatua galditu zen. Egun berean, baina Gorramendin, hamar bat hektarea erre zituen suteak. Bertzalde, hila 17an Zigako Etxezuri parajearen ere sutea izan zen.

ORGANO AUTONOMOEKIN ARAZORIK EZ

Udal Aurrekontuak eztabaida eragin zuen NaBa eta UPNren artean, baina organo autonomoetara bideratuko den diru-sailean ez zen arazorik izan. NaBaik zein UPNk, biek Francisco Jokin Iriarte zahar-etxe eta Baztan Ikastolako aurrekontuetan alde agertu ziren. Hala, zahar-etxeari 2.186.290 euro emanen zaizkio, eta ikastolari, 650.555,46 euro.

POTTOKI
Baztanberri Plaza, 3 - beheak
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Telefonoa: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com

Astelehenean
larunbatara:
8:30 - 13:30
18:30 - 20:00

MENDIALDE
Jatetxea
948 453 050
N-121-8, 66 km
LAMAURI

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

BAZTAN

Hirugarren Stock Feria eginen da larunbat eta igande honetan

Elizondoko Baztan pilotalekuan izanen da

Maite OTEIZA

Bertan Merkatari eta Komertzianteen Elkar- teak antolatuta, hiruga- rrenez eginen da Stock Feria asteburu honetan, larunbatean eta igan- dean. Elizondoko Baz- tan pilotalekuan izanen da, goiz eta arratsaldez, eta 19 komertzio- k par- te hartuko dute.

Korrika Kulturala

Korrika 16ren barne, Euskal Herriko hainbat

tokitan ekitaldiak egiten ari dira. Baztanen, erra- terako, martxoaren 15ean Eidabe Antzerki Taldeak *Atxikistan* hau- rrentzako ikuskizuna es- kainiko du Lur dantza- lekuan. 17:00etan hasi- ko da antzerkia.

Lan istripua

Oronoz- Mugairiko Marmoles Baztan en- presan lan istripua izan da berriki, 150kiloko marmol plakak langilea jota. Oronoz-Mugairiko



UTZITAKO ARGAZKIA

Gaztediaren Etxea sortu nahi da Baztanen

Jorge Oteiza Museo Etnografikoaren Lagunen Elkarteak Baztan osorako Gaztediaren Etxea sortzeko kanpainari ekin dio. Otsailaren 26an eman zuten ekimenaren berri Ana Mari Marin margolariak eta Lander Santama- ria kazetariak eta 2010. urte hasierarako martxan jarri nahi lukete. 100.000 euroko aurrekontua dauka egitasmoak eta Nafarroako Kutzaren *Zuk au- keratu, Zukerabaki* programan sartua dute. Baztanen dagoen eskasia iku- sirik, 10 eta 18 urte arteko kultur jarduerak, gizarte formakuntza, hez- kuntza eta aisialdirako eta harremanetarako lekua eskaini nahi diete.

konsultegian lehenbi- ziko laguntza eman on-

dotik, Iruñerat anbulan- tzian eraman zuten. Ha-

lere, zorionez, arratse- rako etxean zegoen.

3. AUKEREN AZOKA

MARTXOAK 7-8

ELIZONDOKO UDAL FRONTOIAN

Partehartzaileak

AZKEN MUGA ARROPADENDA FANTXIME ARROPADENDA KILIKI IZETA ORDULARDENDA ARGIBEL OPTIKA	SPINGI ARROPADENDA HONESTO LOPEZ CENTRO ESTETICA - PERFUMERIA NOA MARI CRUZ LENZERIA JOYERIA BURDAIN	CALZADOS VIRGILIO KATTALINGORRI POTTOKI LIBRERIA NAFARPRESS ARTESIAGA MOBILIARIO - OFICINA - PAPELERIA	MALLENEA DEKORAZIOA MALKORRA ZAGUA ESKIZ INFORMATIKA
--------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------

ETA GAINERA... HAURENDAKO TAILERRAK, INTERNETA DOHAINIK, TALOAK...

Antolatzailea: bertan

Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua 2012 | Batzango Udalea | EUSKIZ

LARUNBATA 15:00 - 20:00
IGANDEA 11:00 - 19:00

BAZTAN

Lekarozko kaputxinoen Kolegioa botatzea erabaki du Nafarroako Gobernuak

Elizaren eta Bidelagun eta Ikasle Ohien elkarten instalazioak ez ezik, dena eraitsiko dute

ttipi-ttapa

Lekarozko Kolegioaren inguruan Nafarroako Gobernuak eta Udalak 2003az geroztik izan dituzten tira-birei akabaila emanen zaiela dirudi. As-tehena honetan, martxoak 2, Lekarozko Ikasle Ohien Elkarteak, Udalak eta Nafarroako Gobernuak akordioa sinatzea zuten hemendik aitzinerakoa adosteko.

Egoitzaren etorkizuna zein izanen den erabakitzeke eztabaidan ibili dira hondarreko urte hauetan. Aditu diren proposamen guztien artean, azkenean, badirudi Kultur Etxea eta Nafarroako Gobernuak bultzatu duen hizkuntzen murgiltze zentroa aterako direla aitzinera, beretzeak bertze.

Gobernuko arkitekto eta teknikoei egoitza aztertu ondotik, irtenbiderik onena botatzea izanen dela ohartarazi zuten, egoera kaskarrean dagoelako. Hala, ia dena botako dute, eliza eta

Lekarozko Ikasle Ohien eta Bidelagun elkarteek duten eraikina izan ezik.

Bertzalde, aipatu, Lekarozko obrak finantzatzeko 12 milioi euro bideratuko direla, eta hori *Nafarroa 2012 Plana* izenekoa onartua da goela.

Oronoz-Mugairiko etengabeko arreta zentroa ez ixteko

Herrietako alkateek lehendabizi, eta gero Batzar Nagusiak. Baina denek azaldu dute publikoki Oronoz-Mugairiko

etengabeko arreta zentroa ixtearen kontra dardela. Horixe bera onartu zuen Batzar Nagusiak otsailaren 19an egindako bilkuran, aho batez gainera. Horrez gain, Maria Kutz Osasun kontseilariarekin bilera egiteko ere eskatu zuten.

Lehenago ere bueltak ibili ondotik, Osasunbideak otsailean jakinarazi zuen larrialdietarako zentroa hilabete hasieran itxiko zuela.

Institutuko informazio saioak

Aurre- matrikulazio kanpainaren harira, Lekaroz-Elizondoko Institutuak informazio saioak egingen ditu hurrengo astean. 2009-2010 ikasurtean DBH egitekoa dutenei bideratutako euskarazko informazio bilerak martxoaren 9an egingen dira, eta biharamunean gaztelera zkoak.

DBHko lehen maila egin behar dutenentzat 16:00etan izanen da bilera; DBH 2koentzat 17:00etan; DBH 3koentzat 17:30etan eta DBH 4koentzat 18:00etan.

Batxilergoa, Lanbide Heziketa edo Unibertsitateko ikasketak egin behar dituztenentzat, berri, hilaren 11n eta 12an izanen dira solasaldiak.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Saharaztan erakundea sortu da

Orain arte Baztan-Bidasoa aldeko Saharar herriaren aldeko elkartasun taldea izan dena, *Saharaztan* izanen da hemendik aitzinera. Joan den astean eskaini zuten prentsaurrekoan hala adierazi zuten ekimenaren bultzatzaileek. Nafarroa osoa hartzen duen ANAS elkartearekin harremanetan dardela aipatu zuten, eta Espainiak Sahara Mauritania eta Marokoren menpe utzi zuenetik, urteetan sufrizten ari den «traizio ikaragarria» salatu zuten. Horri aitzin egiteko ahaleginetan ari direla gogoratu zuten.

Maderas
GOMEN
Tel. 948 580 645
Zaldubia Industrialdea
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinus...
- Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braçco iriatse karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853



ESKIZ

informatika zerbitzuak s.l.

948 581 822

948 580 465

info@eskiz.es

www.eskiz.es

erlategi, 4 ELIZONDO

WEB
ORRIAK

Eskatu aurrekontua
konpromezurik gabe



www.urruska.com



www.argibel.com



www.mueblestelletxea.com



www.antzuzelai.com



www.arkilanak.com



www.josenea.es



www.malkorra.com



www.inagal.com



www.uzterri.com



ORDENADOREAK - PORTATILAK - TAILER PROPIEDA - MULTIFUNTZIO/INPRINSAJULAK
ZERBITZU PROFESIOANALA - IKASTARDAK (hasmenta, irudi digitala, Office, Internet...)
KONTABILITATE ETA FAKTURAZIO
PROGRAMAK - WEB ORRIAK

 **ESKIZ**
INFORMATIKA ZERBITZUAK

ZUGARRAMURDI

Espainiako Gobernuak azkenean onartu du Udalak aurkeztutako proiektua

Mediku kontsulta berritzeko 32.716 euro jasoko dira

Margari eta Koro

Urtarrilaren 24az geroztik zalantzan egon ondotik, azkenean otsailaren 18an jakinarazi zuten Espainiako Gobernuak bere dirulaguntza deialdian aurkeztutako proiektua onartu zuela.

Krisiari eta langaberiari aitzin egiteko iragarritako laguntza deialdia urtarrilaren 24an akitu zen, eta aitzineko egunetan ere eskaera egiten saiatu arren, idazkariak ezin izan zuen azken egunera arte egin eskaera. Espainiako Gobernuak, ordea, garaiz kanpo ibili zela adierazi zion, baina azkenean, Internet arazoak izan zirela onartu, eta Zugarramurdik laguntza jasoko du.

Mediku kontsulta berritzeko proiektua aurkeztu zuen Udalak Espainiako Administrazio

Publikoko Ministerioan, Udalak joan den urteko abenduaren 29an onartu zuen proiektua, hain zuzen. Zugarramurdirerentzat, gehienez, 34.481,89 euro iragarri ziren, baina obraren aurrekontua 32.716,9 eurokoa da.

Herriko Etxetik adierazi dutenez, baliteke mediku kontsultategi berria aurtengo abuzturako martxan izatea.

Konponketa leizean

Leizean zenbait mantentze lan egin ziren otsailean. Batez ere leize gainerako bidea molidatu da: zurezko barandak, eskailerak eta behatokia doan bidea.

Konponketetan aritu diren langileendako ez da batere lan xamurra izan, eurite haundientako egun haietan aritu baitziren lanean.



ARGAZIAK: KORO ETA MARGARI

Giro bikainean aio inauteriei

Umorea onean gan ziren aurtengo inauteriak. Umorea aldatu ez bada ere, inauteriak eurek bai aldatu direla azkeneko urteotan. Duela urte batzuk astelehena eta asteartearekin ospatzeari utzi, eta larunbata egun berria aukeratu zen. Ondotik auzo batzuk kurritzeaz utzi ziren (Alkerdi, Madaria eta Bentak). Eta duela guttiatik igandeko eguna Haurren Eguna dela erran daiteke, egun horretan batez ere familiak beren umeekin ibiltzen baitira. Bertzalde, mendian kurritzen diren bordak ere aldatzen gan dire, batzuk hustu direlako (Zapatonekoa, Gartxitonekoa, Obeneko...). Halere, bertze batzuk berriz bildu dira: Barbereneko, Barrantxeko, Altzateneko eta Aritzondoko. Goi-ko argazkietan haurrak zein helduak ageri dira. Haurrena ortziralean ateratakoa da, inauteriak ospatzeko eskolak antolatutako kalejiran. Berteza, berriz, larunbatekoa da, Kaminoko bordako atearen aitzineko aldean.

MONTXO OSTATIVA

Dantzarineatik 2 km-tara

ТАВЛКО-ДЕНДА
АНЗАН-БОРДА • ВРДАЗЫБИ
Egutero irekia 10:30etik 02:30era

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo - braulio Iriarte 33, 1ºD - 31700
948250371 Iruñea - irabeko monastegia 62, 4ºC - 31011

HERRINO
ETXEN
EDANTZIE
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542319
Maitzen eta Vitorrogea

SARA

ZAGYA

EHIZA ETA ARRANTZA

Elizondo
BARRIOA 27

ARMUA JATETXEA

T: 948 595 131
Zugarramurdi erria 2 km
UPKAD28

SARA

Gure bazterrak ezagutzeko gida argitaratu du Turismo Bulegoak

Oinezkoentzako bederatzi ibilbide eta mendi bizikletaz ibiltzeko hiru proposamen ageri dira

Xan HARRIAGUE

Gure bazterretan oinez edo mendi bizikletaz ibiltzeko liburuxka atara du Turismo Bulegoak. Gure mendi eta oihanak ongi ezagutzen dituztenek ez dute horren beharrik izanen, baina gure horrelako lekuetan gutxitan ibiltzen diren saratarrek aukera paregabea dute haien ingurua ezagutzeko.

Oinezkoentzako bederatzi ibilbide bildura, batzuk errezak eta bertze batzuk zailagoak. Guztietan azalpenak ematen dira ibilbidean barrena ikus daitezkeen intereseko tokiei buruz, hala kapearak, nola bordak eta landareak.

Mendi bizikleta nahiago dutenentzat hi-

ru proposamen biltzen ditu zehaztasun berdinekin.

Dena argazki ederez hornitua dago eta lau hizkuntzetan argitaratu dute: eskuaraz, frantsesez, gazteleraz eta ingelesez. Turismo Bulegoan berean paratu dute salgai, sei eurotan.

Mus Txapelketaren finalak

Hilabete eta erdiz kanporaketak jokatzeko aritu eta gero, Herriko Etxeko Edantegiko Mus Txapelketaren finalak jokatu dira larunbat honetan. Aurten ere 30 bat bikotek parte hartu dute, baina maila bakoitzean hoberenak baizik ez dira gelditu azkenean. Hiru final jo-

katuko dira goizean, nagusia, bigarren mailakoa eta hirugarren mailakoa.

Ondotik sari bana-keta egingen da, eta gero aperitifa. Bazkaltzeko Beñat Saski zikiroa prestatuko du, eta arratsaldean bazterrak animatzeko, usaian bezala, hor izanen da Jose Angel musikaria.

Inauteriak ongi pasa dira

Inauteriak ederki pasatu dira. Bertze hainbat herritan bezala Saran ere inauteri ofizialekin batera iragan ziren, otsailaren 21ean eta 22an.

Larunbatean, usaia den bezala, Helbarrun, Istilart eta Lehenbizkaian ibili ziren gazteak. Biharamunean ikus-



UTZITAKO ARGAZKIA

Sarako bazterrak ezagutzeko Turismo Bulegoak argitaratu duen liburuxkaren azala.

kizun polita eskaini zuten plazan. Gehienak mozorrotuta zirela, giro polita sortu zen, kantantza aritzeko eta Zantantzar epaitzeko.

Ikastolak nahi zuten guztientzat antolatua zuten bazkarian, ez zen lekurik gelditu libre eta han ere giro alai izan zen.



igogailuen instalazioa
Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Gremio guztiak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure igogailu instalatzen dizugu



bentamiguel
denda, jatebidea eta ostalua

Ongi zainduta sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Lakorrak
Janaridenda
Urdaitegia

Ibardingo Lepoa - 948 631 209

Carlos Garaikoetxea
Etxenike
abokatuak

abokatuak

Telefono: 948 561 488
Mug: 630 354 816

Santiago, 58 2C
ELIZONDO



ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
AUDI

MARKA GUZIZEN KONPONKETA
Benarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESAKA (samera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Fax: 948 625 505

SENPERE

Lapurdiko emazteen kontrako erasoez ariko da aurten Zuberoko pastorala

Bertzalde, sorginen ehizaren urtemugaren harira ekitaldiak izanen dira

Franck DOLOSOR

Aurten, 400 urte beteko dira sorginen ehi-za iragan zela Lapurdin eta Nafarroan. Ahoan bilorik gabe, Pierre de Lancrek erran zuen elizak akats haundia egiten zuela *sorginak* ez erretzean. Sorgin gehien errearazi zituen gizona bilakatu zen 1609an. Senpereko gaztelua izan zen De Lancren desmasien lekuko nagusia. Gizon hunek jesuitekin ikasi zuen eta beraz, begi txarrez ikusten zuen Lapurdiko emazteen jarrera. Bere liburuaren arabera, obsesionatua zegoen sexuarekin eta Euskal Herrian ikusi zituen emazteei sexu harreman nahiko libreak gustatzen zitzaizkien. Hori ere ez zien sekulan barkatu De Lancrek.

Sorginen ehizaren urtemuga ospatzeko ekitaldiak eginen dira Senperen, bertzeakbertze, mintzaldiak. Hauen kariatat, Claude Labat historialaria entzuten ahalko da. Ondoko egunetan sorginkeriar buruzko idazlana plazaratuko du Elkar argitaletxearekin. Laster jakin da ospakizunen programa zehatza.

Bien bitartean, Zuberorako *Belhagilen trajeria* prestatzen da ari gai hor-taz Titika Rekalte irratilaria eta kultura eragilea. Pastoral hau Alozen eskainiko dute uztailearen 6an eta abuztuaren 2an. Rekaltek idatzi duen lehen pastoral ofiziala da, nahiz eta duela zenbait urte *Oiherkoren trajeria* apailatu zuen. Xiberoko Botzan, Mauleko irratian, egiten du lan Rekaltek eta Senperen bere ahotza entzun daiteke Euskal Irratiak sarearen irrat-saioetan Gure Irratian.

Orain, sorginen gaia-rekin dabil lanean burubelarri. Bere ustez, XVII. mendea bihurtu izan zen Euskal Herriarentzat eta horregatik gustatzen zaio hainbertze gai hau. Orotarat, 74 lagunek parte hartzen dute mustaketan, pastorala prestatzeko entsegetan...

Motorzale bat hil da errepidean

Bideko istripu batek heriotza ekarri du berriz ere herrirat. G.C. 24 urteko motorzale gaztea zendu da berriki. Olharrak jasan duen istripua Donibane Lohizuneko bide zeharrean gertatu da.



ARGAZKIA: JOSEPH ÇUBURU KOLEKZIOA

Gazteluak itxura hau zuen XX. mendearen hastapenean. Urtez urte, desagiten ari da eta abiada huntan laster harri meta bat bertzerik ez da izanen.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Antena berria Larrungo kaskoan
Wimax antena berria ezarri dute Larrungo kaskoan zuntz optikoaren bidez, Internet jaso ezin dutentzat pentsatua. Paueko Kontseilu Nagusiak ezarraziti duen antenarekin, zerbitzu berria izanen da hamar kilometrako eremuan. Agintariek ez dute neholako informaziorik eman tresna berri huni buruz eta herritar batzuk ke-xu agertu dira ez baita argi txarra ote den osasunarentzat. Ondoko argazkian ageri dena 25. mugarria da, hortik hurbil paratu baitute Wimax antena berria.





EZKONTZAK

Karmelo Sapupo Ruiz eta **M^a Asuncion Gamio Lizasoain**, Doneztebekoa eta Gaztelukoa, otsailaren 12an Donezteben.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Aizpea Tapia Agirre, Berakoa, otsailaren 14an.

Saioa Sagaseta Urrotz, Donamariakoa, otsailaren 11n.

Kattalin Kastro Ordoki, Lesakakoa, otsailaren 15ean.

Lorea Arruabarrena Destribaz, Sunbillakoa, otsailaren 18an.

Kemen Telletxea Sein, Igantzikoa, otsailaren 11n.

Miguel Cimpean, Leitzakoa, otsailaren 8an.

Naia Amorena Eztanga, Sarakoa, otsailaren 6an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Antonio Erasun Andiarena, Oizkoa, otsailaren 10ean, 84 urte.

Luciano Berasategi Aranburu, Berakoa, otsailaren 10ean, 77 urte.

Candelaria Irtzoki Larralde, Lesakakoa, otsailaren 11n, 83 urte.

Maria Telletxea Elizalde, Beintza-Labaiengo, otsailaren 11n, 90 urte.

Pilar Telletxea Telletxea, Zugarramurdikoa, otsailaren 13an, 84 urte.

M^a Esther Bertiz Etxegarai, Etxalarakoa, otsailaren 14an, 76 urte.

Justa Etxeberria Arizaleta, Urdazubikoa, otsailaren 13an, 87 urte.

Micaela Jaimerena Arretxea, Gartzaingoa, otsailaren 14an, 84 urte.

Manuel Elizalde Mariezkurrena, Leitzakoa, otsailaren 15ean, 65 urte.

M^a Luisa Agesta Ariztegi, Donamariakoa, otsailaren 15ean, 82 urte.

Dominika Baleztena Juantorena, Leitzakoa, otsailaren 16an, 88 urte.

M^a Josefa Irtzoki Agirre, Berakoa, otsailaren 18an, 92 urte.

Jose Mariezkurrena Larregi, Amaiurakoa, otsailaren 18an, 79 urte.

Santiago Olano Sestorain, Leitzakoa, otsailaren 21ean, 67 urte.

M^a Jesus Sarratea Etxalar, Iruritikoa, otsailaren 23an, 81 urte.

Francisco Aiestaran Tapia, Lesakakoa, otsailaren 23an, 75 urte.

Catalina Zestau Zestau, Leitzakoa, otsailaren 24an, 65 urte.

M^a Carmen Etxebeste Zozia, Doneztebekoa, otsailaren 24an, 88 urte.

Marie Paul Aisan Barnetxe, Sarakoa, otsailaren 14an.



Dominika BALEZTENA JUANTORENA

Leitzan, otsailaren 16an



Umorez eta alaitasu egoten ginen elkarrekin eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin

ZURE ILOBA ETA ILOBA TTIKIK



M^a Josefa IRAZOKI AGIRRE

(Manuel Garbisuren alarguna)

Zalain-Zokon, otsailaren 18an

Laster arte ezpainetan utzi gaituztu penetan orain gure ametsetan bizirik zaude benetan zeruko izarretan eta gure bihotzetan.

ZURE FAMILIA

Elkartasuna adierazi diguzuen guztiei, eskerrak aunitz.



Luciano BERASATEGI

1931-10-31/2009-2-10

Atzo zenuek ere nigar egin du ausarki penatua zu hemendik joaten ikusita Baina gaur erauntsia atertu ondotik ez da gelditzen esker ona bertzerik mila ta mila esker zuretzat bihotz oneko gizona.

Larun azpiko xoko eder honetan betiko egonen zera bisturik gure artean Luciano, gure argi

ZURE FAMILIA



UTZITAKO ARGAZKIA

Ibai MEOKI

Doneztebeko eskubaloia jokalaria

Gurutze PIKABEA

Gaztea da oraindik, 20 urte bertzerik ez. Eta ibilbide luzea du aitzinetik. Baina poliki-poliki bere ametsa betetzeko bidean doa, «Asobal ligako jokalaria izan eta talde haundi batean aritzeko» bidean, alegia. Horixe baita bere ametsa. Mutiko kozkorra zela hasi zen eskubaloian Ibai Meoki, bere lagun aunitz bezala, Doneztebeko Erreka taldean, Txomin Mindegiaren agindueta. Urte batzuk gibelera egin, eta Errekan eman zituen urteei buruz galdetuta, bi aldiz pentsatu gabe erantzun digu: «oroitzapen onak». Hitz politak ditu Errekari buruz: «talde ona izan du beti, eta nahiz eta ez ligarik irabazi, gerra eman izan du beti».

Erreka utzi eta San Antoniora jo zuen Ibaik. Ingeneritza ikasketak egitera Iruñera joatea erabaki zuen eta San Antoniok bere taldean aritzeko aukera eskaini zion. San Antonioko bigarren taldean aritu zen hasiera hartan, eta 2007ko abenduan talde nagusian jokatzeko aukeratu zuten. Ongi gogoan du lehenbiziko partida hura: Logroñoren aurka izan zen eta azken hiru minututan ate-

ra zuten. «Partida erabakia zegoenean penalti bat jaurtizten utzi zidaten eta sartu nuen», dio Meokik.

Asobal ligan aritzea haundia izan da doneztebarrarentzat, «positiboa», bere hitzetan. Momentuz, lau partida jokatuta ditu Asobalen, lehenbiziko urtean bi eta joan den urtean bertze bi. Gainera, horietako batean Niko Mindegia herri-tarra eta laguna izan zuen ondoan: «el-karri begiratu eta irri egiten genuen, 'begira non gauden' erranez». Asobal Koparako ere deitu zuten, baina azkenean ez zuen jokaterik izan.

Asobal utzi eta orain, denboraldi hau akitu arte behinik behin, Anaitasunarekin ariko da, bi taldeak hala erabaki dutelako. Meokik ere gustura hartu du erabakia: «egunero Asobalekoekin entrenatzen nuen, baina lesionatu aunitz zeu-

«Unibertsitatetik entrenatzera eta entrenamenduetatik unibertsitatera. Horrela nabil, eta ez dut bertze gauzetarako denborarik»

«Asobaleko jokalaria izan eta talde haundi batean aritzea gustatuko litzaidake»

• Doneztebeko Erreka eskubaloia taldeetik atera eta poliki-poliki goiti doan bertze kirolarietako bat da Ibai Meoki Etxebeste (Doneztebe, 1988).

• 2007ko abenduan debutatu zuen Portland San Antonio taldearekin, eta hantxe aritu da geroztik. Denboraldi honen hasiera ere Portlanden egin du, baina orain, bi taldeen arteko akordioaren bidez, hilabete batzuetan Anaitasunarekin ariko da, Ohorezko B mailan. Eta gustura hartu du aldaketa, «gehiago jokatzeko aukera» izanen duelako.

• Egutero ez bada, ia egunero entrenamendu saio gogorrak egin behar baditu ere, ingeniari-tza ikasketekin segitzen du Iruñean.

denean baino ez nuen jokatzeko partidatan. Alde horretatik, Anaitasuna nahiz eta maila baxuagoan egon, minutu gehiago jokatzeko aukera izanen dut».

Kantxan zentral postua du Ibaik eta ongi moldatzen da, taldea ederki mugituz. Halere, hobetzeko «aunitz» duela aitortu digu: «kanpoko jaurtiketak, eta batez ere, partida ongi irakurtzen ikasi behar dut, hobeki pentsatzen».

Ingeneritza Industrial ikasten dihardu Iruñean, eta zenbaitetan eskubaloiarekin bateratzea gogorra egiten zaion arren, poliki-poliki atera nahi du. «Unibertsitatetik entrenatzera eta entrenamenduetatik unibertsitatera. Horrela nabil, eta ez dut bertze gauzetarako denborarik». Ez da guttiagorako. Izan ere, Anaitasunarekin astean bost eguneko entrenatzen du, eta egun batean goizarratsaldez. Larunbatetan, berriz, partida izaten du. Baina merezi du. Gustukoa baitu eskubaloia. «Ilusioa, lagunak eta egunerokotik ateratzeko lasagarria». Horixe da eskubaloia Meokirentzat, eta zortea izan dezala hemendik aitzinera ere, bere ametsa betetzeko aukera izan dezan.

AIZKORA

Larretxeak eta Atutxak bigarrenenez segidan Urrezko Aizkolarien txapela jantzi dute

Gazteen mailan, Saralegi eta Olano leitzarrak irabazi dute finala

ttipi-ttapa

Urrezko Aizkolarien Binakako laugarren txapela etxean du Donato Larretxea arantzarrak. Otsailaren 22an jokatu zen finala Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. Aitzol Atutxa (Dima, Bizkaia) gaztea izan zuen lagun eta sei probetatik bortzetan nagusitu ziren. Anjel Arrospide eta Iñaki Azurmendiren kontra lehiatu ziren eta final ikusgarria eskaini zuten guztiek, estu joan baitzen.

Azkenean 34 segundoko aldea atera zuten txapeldunek: 24:32ko denbora egin zuten Larretxeak eta Atutxa II.ak



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Donato Larretxea bere entrenamendu saio batean.

eta 25:06koa Arrospidek eta Azurmendik. Joan den urten ere bikote berri izan ziren Arantzakoa eta Dimakoa eta txape-

la eskuratu zuten orduan ere. Honekin, beraz, binakako laugarren txapela du Larretxeak eta bigarrena Atutxak.

GAZTEETAN SARALEGI ETA OLANO NAGUSI

Egun eta toki berean jokatu zen gazteen mailako finala, eta txapel hau

ere eskualdean gelditu zen. Ruben Saralegi eta Arkaitz Olano leitzarrak gailendu ziren. Aurtizko Ander Erasun eta Berriozarko Julen Kañameres izan zituzten aurkari. Bortz probetatik hiru irabazi eta 14 segundoko aldea aterata nagusitu ziren leitzarrak. 17:06ko lana egin zuten txapeldunek eta 17:20koa azpitxapeldunek.

Joan den urteko txapelketan, Oihan eta Gariquito Larretxea lehen-gusuen aurka galdu zuten Saralegik eta Olanok finala, baina aurten ez diote txapelari ihes egiten utzi.

MENDI LASTERKETA

Berako Mendi Maratoi Erdian izena emateko epea zabalik dago

15-17 urtekoentzat 6,6 kilometroko lasterketa egingen da

ttipi-ttapa

Lasterketa apirilaren 19an izanen bada ere, Berako Maratoi Erdiaren bortzgarren edizioan izena eman nahi duenak dagoeneko egin dezake. Lasterketa antolatzen duen Manttale Mendi Lasterketa Taldeak martxoaren 2an, astelehena, ireki zuen epea eta hilaren 27a bitarte izanen da aukera, ez bada aitzinetik 400 parte-hartaileren muga betetzen.

Ibilbidea aitzineko urteetakoaren berdina izanen da: 2.420 metroko desnibela eta 21 kilometroko luzera izanen ditu. Oraingoan, gizezkoetan Ionut Zinkarena da markarik onena (1:41:27) eta emakumezkoetan Alizia Olazabalena (2:07:05). Zinkaren marka hobetzen duenak 300 euroko aparteko saria jasoko du, eta horrez gain, Ibardinera lehenengo ailegatzen denak 150 eu-

ro jasoko ditu. Maratoi-ko lehen hiru sailkatuek, berriz, emakumezko zein gizezkoek, 250, 150 eta 100 euro jasoko dituzte, hurrenez hurren.

Izena emateko www-manttale.com web orrian egin behar da, eta 20 euro ordaindu behar dira.

Aurten, berrikuntza gisa, 15-17 urteko gazteen-tzat ere maratoia antolatu du Manttalen. Kiroldagitik abiatu eta Ibardinera bitarte 6,6 kilometro-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urteko edizioan eguraldi ederra izan zuten parte-hartzaileek.

ko bidea egin beharko dute. Izena aipatu web

orrian eman behar da, sei euro ordainduta.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

IKASTAROAK

ETXALAR

Martxoaren 9tik 18ra, 16 orduko ikastaroa eskainiko da Kultur Etxean. Curriculum bat edota iragarki bat Word erabiliz egiten, Nafarroako administrazioa Interneten eta musika eta irratia Internet bidez nola entzun ikasteko aukera.

DONEZTEBE

Martxoaren 10ean, 17an, 24an eta 31n eta apirilaren 7an erretzeari uzteko hitzaldiak. 12:30etik 14:30era Liburutegian. Xehetasunak 16. orrialdean.

HIZLARIAK

LESAKA

Martxoaren 6an, *Emakumeok gure gorputzaren jabe. Abortua libre eta doakoa* izeneko hitzaldia eskainiko du Bilgune Feministako Miren Aranguren. Arrano Elkarte. 20:00etan.

POESIA

ELIZONDO

Martxoaren 20an, poesia erreztaldia Anasaps erakundeak antolatuta. 17:00etan Arizkunengan.

ZINEMA

LEITZA

Martxoaren 6an eta 8an, Clint Eastwooden *El Intercambio* filma ikusgai. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

BERA

Martxoaren 5ean, *Caramel* filma ikusgai. 19:00etan Kultur Etxean.
Martxoaren 8an, *Mi pequeña Sunshine* filma ikusgai. 18:00etan Kultur Etxean.

GOMENDIOAK



Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira ekitaldiak

HITZALDIAK, FILMEAK, TAILERRAK, BILKURAK...

Emakumeen Nazioarteko Eguna da igandea, eta horren harira, hainbat ekitaldi egingen dira inguruan.

Berako Uxua Emakume Taldeak eta Kultur Batzordeak Emakumearen Astea antolatu dute eta bi film eskainiko dira Kultur Etxean. Ortzegun, 19:00etan *Caramel* izeneko da ikusgai eta igandean, 18:00etan, *Mi pequeña Sunshine*. Larunbatean, bazkaria egingen dute.


Lesakako Arrano elkarteak solasaldia antolatu du ortziralerako. Bilgune Feministako Miren Aranguren *Emakumeok gure gorputzaren jabe. Abortua libre eta doakoa* hitzaldia eskainiko du 20:00etan.

Baztanen, Gaztetxeak zenbait eki-

taldi antolatu ditu *Gure espazioa, gure gorputza* izenburupean. Ortziralean, 21:00etan, *4 meses, 3 semanas y 2 días* filmea eskainiko dute eta ondotik, abortoari buruzko solasaldia eta afaria egingen dira. Larunbatean, emakumeentzako sexualitate tailerra, talo jatea eta *Ciudad Juárez-Chiapas* Mexikoko emakumeen martxaren argazki proiektioa izanen dira.

Igandean, 12:00etan kontzentrazioak egingen dira **Doneztebe, Lesaka** eta **Elizondon**. Horrez gain, **Baztanen**, 13:00etan txaplata edo konpresak egiten ikasteko tailerra, bazkaria Gaztetxean eta ondotik, sorkesak eta kalejira izanen dira.

DISKAK



Joan den urteko abenduaren, ITOIZ taldearen lehendabiziko diskoaren 30. urterrena izan zen, *Lau Teilatu* lanarena, alegia, eta hori gogoan, Elkar argitaletxe eta diskoeak CD-DVD bat kaleratu du. Alde batetik, taldearen diskografian horrelakorik ez dagoela ikusita, CD bilduma bat osatu dute estudioko diskoetatik aukeratutako hemezortzi bat funtsezko kantekin. Bertetik, berriz, hauxe da benetako beritasuna, taldearen irudiak, bideoak, telebistetan grabatutako programak... jasotzen dituen DVD adierazgarria eta historikoa ere osatu dutela. ITOIZek, berriro ere, ustekabean harrapatu gaitu, altxor bat zuen ezkutuan, besapean gorderik: bere irudia. *Antologia 1978-1988* izenarekin argitaratu dute aipatu lana.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (otsailaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 40,00 € (=)

Zerri gizena
0,995€ kilo. (+0,030)

Zerramak:
0,450€ Kg/bizirik. (+0,020)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,25 (-0,06)
1.koa 3,95 (-0,06)
2.koa 3,25 (-0,06)

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,35 (-0,06)
1.koa 4,05 (-0,06)
2.koa 3,37 (-0,06)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 192,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,10/3,20
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,10/5,90
8-10 kilokoak: 4,30/4,60

JAKIN BEHARREKOAK

Argindarraren hilabeteroko fakturazioa bertan behera uzteko eskatu du Irachek

Jende aunitz kexatu da urtarrileko argindarraren fakturarekin

Irache Nafarroako Kontsumitzaile Elkar-
teak argindarraren hi-
labeteroko fakturazioa
bertan behera utz de-
zala eskatu dio Es-
painiako Industria, Tu-
rismo eta Komertzio
Ministerioari, ordain-
keta epe bakoitzeko
egiazko kontsumoa-
ren irakurketak egite-
ko aukerarik izan bi-
tarteetan. Urte hasiera-
tik 250 kontsulta bai-
no gehiago jaso ditu
Irachek, etxera aile-
gatutako fakturaren
kopuruarekin kezka-
tutako kontsumitzaile-
ena.

2009an argindar
enpresak hilabetero
fakturatzen hasi dira,
baina neurketa tres-
netan bi hilabetetik egi-
ten den irakurketa oi-
narrizat hartuz. Gisa
honetan, etxebizitza
aunitzetan urtarrilean
hartutako faktura ez
da egiazko kontsumo-
an oinarritzen, 2008ko
urtarrilean



Urte hasieratik 250 kontsulta jaso ditu Irachek argindarra dela-eta.

egindako banaz ber-
tzeko kontsumoaren
estimazio batean bai-
zik. Otsaileko faktura,
aldiz, kontadorearen
irakurketan oinarritu-
ko da eta aitzineko hi-
labetearen kobratuta-
koan izandako gora-
beherak konpentsa-
tuko dira.

Neurri honekin,
kontsumitzaileari in-
formazioa gardena-
goa eskaini ordez, na-
haspila sortu da. Kon-

tsumitzaile aunitzek ez
dute erreziboa zuzena
edo okerra den ja-
kitako aukerarik, esti-
mazio bat denez ez
dagokio egindako kon-
tsumoari eta kontsu-
mitzailea babes gabe
gelditzen da eta ez du
protesta egiteko tar-
terik. Gainera, etxebi-
zitza guzietan ez da
oraindik bateratu eta
batzuk faktura hilabe-
tero jasotzen hasi di-
ren artean, bertze ba-

tzuk bi hilabetetik ja-
sotzen segitzen dute.

MINISTERIOARI ESKAERA

Nahaspila eta ezi-
negon egoera honen
aitzinean, Irachek ar-
gindarraren hilabete-
roko fakturazioa ber-
tan behera utz dezala
eskatu dio Espainiako
Industria, Turismo eta
Komertzio Ministerio-
ari, ordainketa epe ba-
koitzeko egiazko kon-
tsumoaren irakurketak
egiteko aukerarik izan
bitarteetan. Iracheren us-
tez, «ez da bidezkoa
gero eta zerbitzu
gehiagok kontsumi-
tzaileek egindako era-
bilera zehatzarengatik
kobratzen duten bitar-
teetan, argindarra be-
zain oinarizkoa eta be-
harrezkoa den bat es-
timazio baten arabera
kobratzea». Kontsu-
mitzaileei informazio
ere eskatu dio Irachek Mi-
nisterioari.

LIBURUAK



Zazpi etxe Frantzian

Bernardo ATXAGA
PAMIELA, 2009

«Chrysostome Liègegek 1903ko
hasieran sinatu zuen Leo-
poldo erregearen Force Pu-
bliquen zerbitzatzeko kon-
tratua, eta urte bereko abuz-
tuan iritsi zen Afrikako biho-
tzera. Pakebote batek era-
man zuen Anberesetik Ma-
tadira; trenak, Leopoldvillera;
bapore ertain batek, Prin-
cesse Clementinek, Yan-
gambiko postu militarrean».

Holaxe hasten da Bernardo
Atxagaren nobela berria. Eten
bat idazlearen ibileran, testu

harrigarria alde aunitzetatik.
Atxagak berak adierazitako-
aren arabera, gizakiaren alde
zital eta txarrena islatzen saia-
tu da nobela honetan, «baina
umorea erabiliz». Gaineratu
duenez, «orain arte prosan
idatzi ditudan liburuekin ez
du zerikusirik». Oraindik ka-
lean ez badago ere, Pamie-
la argitaletxearen eskutik uda-
berrian izanen da irakurtze-
ko moduan. Euskaraz ez ezik,
gaztelaniaz, galizieraz eta ka-
talanaz argitaratuko du.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko
begiratu: www.ttipi.net
(agenda)

MENDI ATERALDIAK

SUNBILLA

Martxoaren 15ean Aizkorrira
joanen dira Ulibeltzak Mendi
Taldekoak, Sunbillatik
7:00etan abiatuta.

ZUGARRAMURDI

Martxoaren 29an
Zugarramurdiko itzulia,
Atxuria Mendi Taldearen
eskutik.

BAZTAN

Martxoaren 15ean Belaune-
ra ateraldia egingen du Baz-
tango Mendigoizaleak-ek.
Martxoaren 22an bortz
milak aukeratu du Baztango
Mendigoizaleak taldeak.

ANTZERKIAK

BERA

Martxoaren 14an *Kanpaia*
jo bitartean antzezlan,
Korrika Kulturalaren barne.
22:00etan Kultur Etxean.

ELIZONDO

Martxoaren 15ean
Atxikistan haurrentzako
ikuskizuna. 17:00etan Lur
dantzalekuan.

OSPAKIZUNAK

ARANTZA

Martxoaren 14an Mozorro
Besta.

AZOKAK

ARANO

Martxoaren 14an bigarren
eskuko gauzen azoka.
Xehetasunak 20. orrialdean.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Martxoaren 7an Sutagar
taldearen kontzertua Lur
dantzalekuan, 23:30ean.
Sarrera: 10 euro aurretik eta
12euro egunean.

aproposa. ☎667 702267.



DENETARIK 702 Salerosketak

Agria 9900 E traktorea eta bere karroa salgai. Belarrrari buelta ematekoa salgai (4 metro zabal). Egoera onean. ☎948 450060.



SANTESTEBAN Tailerrak

Opel Astra GTC 1.9 120 CV
2000 urtekoa

Treffe 2.0 DCI 118 CV
7 plazakoa
2008 urtekoa -18.000 km

Renault Scenic Dynamique
1.9 DCI 105 CV
2007koa -20000 km

Clio III Dynamique 1.5 DCI 85 cv
Kangoo Grand Volumen 1.5 DCI
Sedan Dynamique 1.5 DCI 105 cv
Espace Emotion 2.0 DCI 130 CV 7 plazakoa
Peugeot 307 1.6 110 cv
Megane II Dynamique 1.9 DCI 120 CV

ttipi
ttapa

www.ttipi.net
info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

EZKONTZA GONBIDAPENAK

**100 gonbidapen
150€**

Zok nahi dituzun bezala
pertsonalizatuak

Kulturkari
Baserriagrupoa@ttipi.net

Andutzeta, 12 • ETXALAR • Tel. 948 635 458 • kulturkari@ttipi.net

ESZENA DANTZA JAIALDIA

Martxoaren 28a, larunbata "Hip hop dantza multimedia"
"Papiro... Flexia" (Logela Multimedia & Circle of Trust)
20:00 Berako Kultur etxean

Apirilaren 17a, ostirala "Dantza garaikidea"
"Soñando despiertos" (Laida Aldaz eta Cruz Isael Mata)
22:00 Berako Kultur etxean

SARRERA (emanaldi bat): 6 € • (bi emanaldietarako): 10 €

Antolatzaileak:  

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



Zubietako **MIKEL** **SANTESTEBAN GOIZUETAK** 3 urte beteko ditu martxoaren 18an. Aunitz urtez familiaren eta bereziki Lorearen partetik.



XUBAN BENGOTXEA BIDEGAIN erratzuarrak 3 urte bete ditu otsailaren 24an. Zorionak Idaborroko familia guztiaren partetik.



IZARO ETXEPARE ELRIOK 5 urte bete ditu otsailaren 21ean. Zorionak parrandera familiaren eta bereziki Olatz eta Joneren partetik. Muxu pila gure sorginarentzat.



JAIONE IRIGOIEN MADARIAGA aranztarrak mende laurdena beteko du martxoaren 5ean. Adinak ez duela barkatzen e! Aunitz urtez!



PATXI OIARTZABAL REUELTA doneztebarrak 3 urte egin ditu martxoaren 1ean. Zorionak eta muxu erraldoi bana attatto eta amatoren partetik.



LAIDA TABERNA URRRA lesakarrak urtea bete du martxoaren 4an. Zorionak eta muxu erraldoi bana attatto eta amatoren partetik.



LAIDAK, NINBEK eta JULENek urteak beteko dituzte martxoaren 4an, 9an eta 12an. Zorionak familia guztiaren partetik, argazkiaren ezkerrean dagoen Lukenen partetik eta nola ez, Olarixu, Peru eta Goiuriren partetik.



Leitzako **IORITZ DORRONSORO IPARRAGIRREK** 2 urte bete ditu. Orain arte bezain alai jarrai dezazun, zorionak eta muxu handi bat aitaxo eta amatoren partetik.



GAXUXA ZELAITA EULATEK 2 urte bete ditu otsailaren 18an. Zorionak Igantziko familiaren partetik.



Zubietako **LANDERREK** urtea beteko du martxoaren 9an. Mila kilo zorion aita, ama eta Joneren partetik, baita Xune, Unai, Mirari eta Aimirren partetik ere.



Aunitz urtez potxola! Hagitz ongi pasa zure egunean eta ea tragoxka batera gonbidatzen gaituzun! Muxu handi bat. Kaxkarrak.



GARAZI SAROBE SANSIENENA Elizondoko pailazorik ederrenak 6 urte beteko ditu martxoaren 16an. Zorionak! Familia eta bereziki aita-xo eta amatxo.

ANIMA ZAITEZ!

ZORIONAK INTERNET BIVEZ,
OJO ETXARA DA ETAI
www.ttipi.net

SAN FRANCISCO JAVIER

Haur eta Lehen Hezkuntzako
Ikastetxe Publikoa

**MARTXOAREN
9tik 16ra**

ELIZONDO
Telf./Faxa: 948 581 808
cpelizon@pn.te.cfnabarra.es

Eskola publikoa aurrerantz



Haur eta Lehen Hezkuntza
aurrematrikulazioa
martxoaren 9tik 16ra

LABIAGA
ikastola

Altzate, 12 • BERA • T-F.: 948 63.01.72
Ezlegara, 32 • BERA • T.: 948 63.15.58
bera@ikastola.net

Matrikulazio epea
martxoaren
9tik 16ra



**TANTIRUMAIRU
IKASTOLA**

1974tik KALITATEZIKO
HEZKUNTZA EUSKADAZ
948 637 308 LESAKA

**ongi
etorri**
aek
**korrika
KULTURALA**

MARTXOAREN 6an, ORTZIRALA, 19:30ean

"Baztan-Bidasoako euskara: ikerketa eta testigantza"

Hizlaria: Edu Zelaieta
Solasaldi musikatua. Berako liburutegian

MARTXOAREN 14an, LARUNBATA, 22:00etan

"Kanpaiak jo bitartean"

Emakume gazte bat eta gizon gazte bat.
Neska, amatsunaren dela jaso berri, medikuaren kontsultara
doa intseminazio artifiziala praktikatu diezaioten.
Mutila, semen emaila, hilero bezala bere dosia entregatzera doa.
Ustekabeko kointzidentziak ezagutu berri den bikotea
etengabeko gaizki ulertzean nahastuko da, egoera barregarri
beziain zalapartatsuetara bidala egiteko.
Elkar ezagutu behar ez zuten eta behar baino gehiago
elkar ezagutuko duten pertsonen arteko ezusteko komedia
eroa eta bizia.

Kanpaiak jotzen duenean hainbeste baitira gerta italtzerkeen sorpresak....

Glu Glu produkzioak,
Antzerki emanaldia - Berako Kultur Etxean,
Sarrera: 6 € (sarrerak hain bertan salgai).

Antolatzaileak



Laguntzailea







BORTZIRIETAN

Irakaskuntza publikoa



Igantzi: Herri eskola
Tel. 948 637 829



Arantza: Herri eskola
Tel. 948 634 104



Bera: Ricardo Baroja E.P.
Tel. 948 625 019



Etxalar: Landagain E.P.
Tel. 948 635 215



TOKI ONA Institutua
Tel. 948 625 000



Lesaka: Irain E.P.
Tel. 948 638 006

Gure herriko hizkuntza eta kultura bultzatuz
Doan - Integratzailea
Jantoki eta garrailo zerbitzuarekin
Teknologi berriez baliatuta
Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan
DBH, Batxilergoak eta LH. bertako institutuan

TXIKIAK HEZIZ HANDITU

Haur eta Lehen Hezkuntza martxoaren 9tik 16ra
DBH martxoaren 23tik 30ra